KIROLA: JON SANCHEZ, TREBEENA IZOTZ GAINEAN SNOW EGITEN /10

# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2005eko irailaren 30a • V. urtea • 214. zenbakia • DOAN BANATZEKOA



Goienka2a

**'BOOKCROSSING' LEKU OFIZIALA DAGO ELGETAN**




**GUDARI EGUNA**

Hainbat manifestazio egin zituzten martitzenean /4

**IÑAKI TXUEKA** / GETARIAKO TXAKOLINA

*"Gure zona nahikoa da dugun merkatu eta beharretarako, ez dugu hedatu beharrik"* /7

**ELGETA**

Egubakoitzeko lan istripua salatu dute sindikatuek /10



MIRARI ALTUBE

## KMK: domekarako dena gertu egongo da

Jo eta ke ari dira Aretxabaletan Kilometroetako antolaketakoak, domekarako dena prest egon dadin. 100.000 lagun espero dira, eta 1.000 boluntario ariko dira lanean. 09:30ean irekiko dute zirkuitua, zortzi kilometro pasatxokoa, Basabeazpin, eta egun guztian ekitaldi piloa egongo da zirkuituko zortzi guneetan. Aretxabaletara ez diete utziko sartzen automobilei; hala, Arrasaten, Eskoriatzan, Bergaran eta Zubillagan 18.000 autorendako lekua egokitu dute. Autobus zerbitzu berezia egongo da Aretxabaletarako. /5




**BARRUAN, GEHIGARRIA, eta DOMEKAN, ALDIZKARIA ZIRKUITUAN BERTAN**

ASTEKO GAIA: ARRASATEKO KULTUR ETXEKO LANAK

# Kultur etxea, proiektu baten zain

Arrasateko kultur etxe berriak hasieran aurreikusita ez zeuden bi hobekuntza izan ditzake. Orain sortu da horiek egiteko aukera, Udalak orain erosi dielako frantziskotarrei eurena zen egoitzaren zatia. Hura egokitu egin gura du orain Udalak, eta klaustroan sabaileiho bat ipini ere. Horietarako aurrekontua eta proiektua jaso eta onartu bitartean, lanak geldituta daude. Erabakiak iskanbila piztu du udal alderdien artean, inbertsio berria dela-eta.

Kultur etxe modernoa eta "bizia" egitea da Udalaren helburua. Liburutegiak, erakusketa areto handi bat, erabilpen askotarako hainbat areto, udal bulegoak... ipiniko dituzte han. /2-3

## Jazz Talde Berrien Lehiaketa, urriaren 8an eta 9an Espaloia aretoan

Errabal Kultur Elkarteak antolatuta, Debajazz jaialdiaren bigarren edizioa egingo da urrian. Mutrikun, Deban, Eibarren, Elgoibarren... hainbat kontzertu izango dira. Baina aurten izango da berritasunik: Jazz Talde Berrien I. Lehiaketa. Elgetan egingo dute hori, urriaren 8an eta 9an, Espaloian. 15 talde daude, Euskal Herrikoak zein kanpokoak. /6

**OÑATI**

### Euskaltegiaren egoitza berria inauguratu dute

Oñatiko Udal Euskaltegiak Bidebarrieta kalean du egoitza berria, eta eguaztenean inauguratu zuten, Pello Zabalaren bedeinkazio eta guzti. Gitarra soinuarekin batera, euskaltegiaren ibilbidea gogoratu zuten batutakoek kantuan. Eraikinak 360 metro koadro ditu, eta herriko beste talde batzuek erabiltzeko aretoak ere badaude. /6

UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA I. LEHIAKETA

Urriaren 3an azken bilduma



Astelehenean, 4 orrialde argazkiekin!

Goienkaria



BERGARA AUTOAK

• AUTO BERRIEN ETA AUKERAKOEN INPORTAZIOA: TURISMOAK, FURGONETAK ETA MONOBOLUMENAK
• GARANTIA IDATZIZ
• FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
• PREVER PLANA • ELBARRITASUNAGATIK DESKONTUAK

Amillaga, 10 • BERGARA • ☎ 943 76 04 58

Audi · BMW · VW · Toyota · Mercedes · Mitsubishi · Porsche



**GOIENKARIAn TELEFONO BERRIA**

Telefono zenbakia aldatu egin dugu GOIENKARIAren Bergarako egoitzan. Aurrerantzean hauxe izango da zenbakia: **943 25 05 01.** Faxa, ostera: 943 25 05 13.

DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/6 • IRITZIA/8 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/19 • DENBORA-PASA/20 • TELEBISTA/22




# Kultur etxe berri ahalik eta onena

- Arrasateko kultur etxeko lanak albiste izan dira
- Udala balizko bi hobekuntza ikertzen ari da
- Lanak geldituta daude proiektu bereiziaren zain

LEIRE KORTABARRIA

Arrasateko kultura etxe berriaren lanak geldituta daude, baina berritasunak egon dira joan den astean. Izan ere, proiektua hobetzeko aukera berriak agertu dira, eta horiek bideratzeko proiektu bereizia egin behar da, bere aurrekontuarekin. Alboko lan horien tramiteak bete bitartean, ezin dute lanekin jarraitu. Handitze aukera horiek etorri dira egoitza horretan udal jabegokoa ez zen zati bakarra erosi duelako Udalak joan den astean.

Proiektu bereizi honekin, Udalaren asmoa da hobekuntza batzuk egitea. Horrek gehiago atzeratuko ditu dagoeneko atzerapen luzearekin doazen lanak; hala ere, bukatzen direnean, emaitza izango da, Arrasateko Udal Kultura ordezkarien esanetan, Debagoieneko kultur etxe garrantzitsu eta osoenetariko bat. Kultur etxea Seber Altube plazan egongo da, ospitale zaharraren egoitzan.

### ZATI BERRIA EROSI DU UDALAK

Balizko bi handitze horien prezioa eta udal onespena jaso bitartean, ez da zentzuzkoa lanekin jarraitzea, litekeena delako gero eraberritze horiek balio ez izatea.

Egoitza horren zati handiena Arrasateko Udalarena zen, eta frantziskotarrek 700 m2ko zati bat zuten. Handitzearen aukera sortu da frantziskotarrek Udalari eskaini ziotelako euren zatia, eta eskualdatzea joan den astean formalizatu delako. 700 m2ko eremu hori oso garrantzitsua da, han egongo direlako Udal Kultura, Euskara eta Hezkuntza Sailak. Horrez gain, igogailua ere ipiniko dute han. Horrenbestez, kultur etxeak 3.100 m2ko azalera izango du.

Bigarren gehikuntza da klaustroan sabaileihoa ipintzea.

Orain, eraikuntza enpresak, Amenabarrek, aurrekontu bereizia eman behar dio Udalari, eta gero, proiektua Udalak onartu egin behar du. Eraberritzeak noiz aurrera egingo duen ez dago jakiterik. Orain azkeneko mugadata zen 2006. urte hasiera.

### KULTUR ETXE INDARTSUA

Azkeneko gehikuntza alde batera, kultura etxe berriaren diseinua hasierakoa da. Egoitzak bi solairu eta teilatupea izango ditu jendeak erabiltzeko; gainera, sotoa eta tarteko solairua.

Sarrera nagusia Azoka kaletik izango da Handik sartuta, behe-solairuan harrera, informazio eta mailegu gunea izango dira; umeen liburutegia eta haurtxoteka; areto nagusi bat, batez ere formatu txikiko ikuskizunetarako, proiekzioetarako...; komunak; eta, erdian, klaustroan, erakusketa areto handi bat, sabaileihoak babestuta. Areto nagusiak bi sarbide izango ditu: barrutik eta zuzenean Azoka kaletik.

Lehen solairuan izango dira helduen liburutegia; hemeroteka, bideoteka eta fonoteka, gela baten; ikasteko gela; eta, 700 m2ko zati erosi berrian, Udal Kultura, Euskara eta Hezkuntza Sailak. Igogailua ere eremu horretan egongo da. Ikasgelak ere bere sarrera independentea izango du Seber Altube plazatik.

Azkenik, teilatupean, modu askotara erabiltzeko hiru gela

## Beste herri batzuetan ere, azpiegitura berriak

### ARETXABALETA

**Urrian botako dute oraingo kultura etxe eta zinema aretoaren eraikina, Herriko plazan. Leku berean egingo dute kultura etxe berria: behe-solairuan, modu askotara erabiltzeko zenbait areto, zinema aretoa eta gaztelekua izango dira; lehenengoan, liburutegia, azalera handiena izango duen zatia eta proiektuko zati garrantzitsuena; bigarrenean, kultura etxeko beste hainbat baliabide (aretoak, lanerako tailerrak, agiritegiak eta biltegiak); eta teilatupean, musika eskola. 3.600.000 euroko aurrekontua eta 15 hilabeteko epea dute lanok. Bien bitartean, kultura etxea Iralabarri plazako lau lokaletan egongo da.**

### ANTZUOLA

**Maristen ikastetxea, orain arteko egoitza, ezin da berreskuratu. Hala, kultura etxe berrirako bi proiektu daude: Maristen ikastetxearen lursailean etxebizitzak egingo dituzte eta, horien bebarruan, kultura baliabideak: gaztetxea, gazte txokoa, gimnasioa, dantza eta mendi taldeen egoitzak, eskulan tailerrak, udal zerbitzuak... Sagasti auzoan beste eraikin bat egingo dute, eta han egokituko dituzte erabilpen askorako aretoa eta liburutegia; bestetik, edadetuendako hainbat baliabide izango dira egoitza berean.**




LEIRE KORTABARRIA

Arrasateko kultur etxe berriko instalazio batzuetara Seber Altube plazatik ere sartu ahal izango da. Sarrera nagusia Azoka kalean ipiniko dute.

egongo dira —batzarrak, hitzaldiak, tailerrak, ikastaroak...—; informatika gela; terraza; eta erdiko patioa.

Sotoan biltegia izango da eta, tarteko solairuan, langileek erabiltzeko instalazio batzuk.

Proiektua idatzi zenetik, 2001. urtetik, Udalak garrantzi handia eman dio beti. Alde batetik, Monterron desegoki geratu da kultur etxe izateko; besteak beste, irisgarritasun arazo larriak ditu. Bestetik, udaletxean leku gutxi dago, eta Udal Kultura, Hezkuntza eta Euskara Sailek leku handiagoa behar dute. Horrela, udal kultura bulegoak kultura etxean ipintzearen joera jarraituko du Arrasateko Udalak ere. Kultur etxe berria herri erdi-erdian egonda, "herritarrendako elkargune" izateko jaioko da, Udalaren esanetan.

*Udalak erosi berri die frantziskotarrei 700m2ko zati bat, eta horko lanen prezioa eskatu dute*

#### PSE-EE ETA PP-REN KRITIKAK

Udal gobernuaren eta oposizioaren arteko eztabaida sortu da azken nobedadeekin bat. Hala, PSE alderdiak esan du ados dagoela hobekuntzak egitearekin, baina ez prezioarekin; esan du, denera, 8 milioi eurotik gora inbertitu beharko dela, eta ikerketa batzordea sor dadila eskatu du. Frantziskotarren zatia erostearen gainean, gogorarazi du, aurreko hitzarmen baten arabera, zenbait baldintza ematen baziren, Udalak zati hori doan eskuratuko zuela. PP alderdia ere arduratuta dago diru publikoa zelan inbertitzen ari den, eta "irregulartasunak" salatu ditu lanetan.

*Bi hobekuntzak onartzen badira, aurrekontu eta proiektu propioak izango dituzte*

Udal gobernuak horri erantzun dio kontu guztiak ikuskatzeko konprometituz eta PSE-EEri eskatuz bere salaketak kentzeko; gainera, proiektu berria laster aurkeztuko duela agindu du Arrasateko alkateak. Bestalde, Ines Aldaik, Udal Kultura Saileko buruak, azpimarratzen du ezin direla proiektuaren hasierako aurrekontua eta balizko handitze lanena nahastu, bi proiektu desberdin direlako, eta frantziskotarren zatia bereganatzeko aukera "orain aprobetxatu" behar zela gaineratu du, doako eskuratzea inoiz ez ala oso epe luzean gertatu zitekeelako.

KULTURA ETXE MODERNOA

### Informazioa hainbat euskarritan ematea, kultura etxeen zeregina

**"Kultur etxe bizia" egitea da Arrasateko Udalaren erronka. Izan ere, kultur etxe kontzeptua aldatu egin da: informazioa euskarri askotan ematen duen iturria da. Kultur etxe baten osasuna adierazten dute erabiltzaile kopurua eta adina, fondoa eta bere berritasuna, kalitatea eta zenbat erabiltzen den...**

BALIO HANDIKO EGOITZAK

### Kultura etxe asko eraikin historiko esanguratsuetan kokatzen dira

**Herri askotan, kultura etxeak balio handiko egoitzatan daude: Monterron, frantziskotarren komentua (Arrasate), Errotalde jauregia (Bergara), 1860. urteko jauregi bat (Oñati)... Jatorrizko ezaugarri fisiko asko gordetzen saiatzen dira: hala, Arrasatekoak jatorrizkoa du kanpoko harri apaingarri gehiena.**

MONTERRON

### Udalak ez du pentsatu zein burubide eman Monterron jauregiari

**Kultur etxe berria egin ondoren erabakiko du Udalak zer egin Monterronekin. Jendearendako zabalik egonez gero, egokitzeko lan handiak behar izango lirateke. Edozelan ere, aukerak ez dira faltako: kanpoan jatetxea ipintzea ere proposatu du bateren batek. Beste aukera bat da udalak berak erabiltzea.**

## Denboran zehar

**1999. URTEA**
**Arrasateko Udalak eta frantziskotarrek hitzarmena sinatu zuten eraikinaren jabego erdibanatua adosten.**

**2001EKO APIRILA**
**Lanak urte bukaera baino lehen ziren hastekoak. Gaztetxea, margo taldearen egoitza eta trikiti eta txalaparta eskolak zeuden egoitzan.**

**2002KO MARTXOA**
**Arrasateko Udalak proiektuari onespena eman zion, 3.868552,46 euroko aurrekontuarekin. 24 hileko epea ezarri zuen lanak hasteko.**

**2002KO UZTAILA**
**Ospitale zaharreko egoitzak ateak itxi zituen udal aginduz. Gazteek gaztetxea hustu zuten.**

**2002KO ABENDUA**
**Zimenduak gaizki zeudela-eta, eraberritze lanak gelditu egin ziren konpondu arte. Ezusteko horrek ekarri zuen aurrekontuaren garestitze handiena: %60.**

**2005EKO MAIATZA**
**Aurrealdeko paretak berreskuratuta zeuden, eta barruko lanak ere, hasita. Bukaera, gehienez ere, 2006. urte hasierarako zegoen finkatuta.**

**2005EKO UZTAILA-IRAILA**
**Frantziskotarrekin hitzarmena berretsi zuen Arrasateko Udalak, haiena zen 700 m2ko egoitzaren zatia erosteko, 600.000 euroren truke. Bestalde, lanak berriro geldiarazi ziren, erosketa horrek kultura etxerako aukera berriak eskaintzen zituelako, eta eraikuntza enpresari lanen prezioa eskatu zitzaiolako.**

urriaren 2an denok...
Aretxabaletara. kilometroak 2005
• Aparkalekuak Arrasaten eta Eskoriatzan.
Aparkalekuetatik etengabeko autobus zerbitzua zirkuitora.
antolatzailea: Ikastolen Elkartea, Arizmendi ikastola
laguntzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak



# EHUk eta HUHEZIk liburu bat kaleratu dute, lehenengo aldiz elkarlanean

*Emunek eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoak hitzarmena sinatu dute*

IRATI AGIRREAZALDEGI

**HUHEZUko Lanki eta EHUko Gezki ikertegiek Globalizazioaren eta auto-eraketaren gaineko liburua egin dute elkarlanean. Bestalde, Emunek eta Goi Eskola Politeknikoak lankidetza hitzarmena sinatu dute eskolan euskara bultzatzeko.**




GOIENKARIA

**Antxon Mendizabal, Ainara Udaondo eta Jon Sarasua liburuaren aurkezpenean.**

Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateko Lanki Ikertegiak eta EHUko Gezki ikertegiak elkarlanean *Globalizazioa eta auto-eraketa* izeneko liburua egin dute.

EHUko Ekonomia irakasle Mikel Zurbano eta Antxon Mendizabal eta HUHEZIko irakasle Jon Sarasua eta Ainara Udaondo dira liburu horren egileak

Globalizazioaren inguruko gogoeta eta auto-eraketaren gaineko ekarpena egiten du lan horrek; eta gogoeta eta eztabaidarako marko bat eskaini nahi du.

"Etorkizunaren inguruko funtsezko hausnarketa pizteko asmoz, hainbat hipotesi aurkeztera ausartu gara. Greziako filosofoen "nondik gatoz, non gaude eta nora goaz" ildotik, Euskal Herrian eta euskaraz egindako liburuan, pentsamendu librearen hegaztiak askatu ditugu", diote egileek.

**LANKIDETZA HITZARMENA**

Bestalde, Mondragon Goi Eskola Politeknikoak eta Emun Kooperatibak lankidetza hitzarmena adostu dute. "Euskarak eskolan duen egoera hobetzeko interes komunak" elkartu ditu bi alderdiak, ordezkarien esanetan .

# Hainbat ekitaldi izan ziren ibarrean 30. Gudari Egunean

GOIENKARIA

**Irailaren 27an, martitzena, bete ziren 30 urte *Txiki* eta *Otaegi* fusilatu zituztela. Hala, "Euskal Herriaren aldeko borrokan hildakoak" omendu zituzten ibarrean, eta hainbat bilkura egin zituzten.**

Ibarreko herrietan su tokiak ipini zituzten egunean barrena "hil diren gudari guztien omenez". Bestalde, Aretxabaletan ekitaldi bat egin zuten arratsaldean eta Arrasaten eskualdeko manifestazioa izan zen.

"1975eko irailaren 27tik, egun hau, Euskal Herriaren askatasun politikoen aldeko borrokan hil diren gizon-emakumeak oroitzeko eta omentzeko eguna da. Aurten bereziki, Cahorsen hil den Imanol Gomez oroitu eta omendu nahi da", esan zuten Gudari Eguneko ekitaldien antolatzaileek.

Arrasaten herriko hainbat tokitan lore eskaintza egin zuten. Besteak beste, Monterronen, Udalarako biribilgunean eta Maalan.

**MANIFESTAZIOA**

Arrasateko hainbat tokitan ertzaintzaren patruilek eta manifestariek aurrez aurre egin zuten topo eta euren artean liskarrak sortu zirenez, manifestazioa bertan behera geratu zen ibilbide guztia egin aurretik.




## Lan segurtasunaren aldarrikapena Elgetan

Elgetako lan istripua salatzeko bilkurak izan ziren astelehen eta martitzenean plazan, sindikatuek deituta. CCOO eta UGT-k batetik eta ELA, LAB, ESK eta STEE-EILAS sindikatuek bestetik egin zuten deia. Bi bilkura egin arren, guztiak bat etorri ziren esatean segurtasun neurri gehiago behar direla eta Laneko Arriskuen Prebentzioko Legea praktikan jarri behar dela, istripu gehiagorik gerta ez dadin. Ezker Batua-Berdeak alderdiak bat egin zuen asteleheneko deialdiarekin.

# Hiru hilabeteko espetxe zigorra jarri diete Demo eta Zuzeneko kideei

GOIENKARIA

**Martitzenean epaitu zituzten, Parisen, Demoak eta Zuzeneko kideak, espetxe bateko harresira igo izanaren akusaziopean. Tartean, Gari Kortazar eskoriatzarra eta arrasatear bat. Hiru hilabeteko zigorra ezarri diete.**

Parisen, Versallesko epaitegian egin zieten martitzenean epaiketa Zuzen eta Demo taldeetako 15 laguni; besteak beste, Eskoriatzako Gari Kortazar eta beste arrasatear bati. Baimenik gabe Poissyko espetxeko harresira igo ziren presoen eskubideak aldarrikatzeko, hildako senideak gogoratzeko eta dispertsioa salatzeko; eta hori da, hain zuzen ere, leporatu dietena, baimenik gabe espetxeko harresira igotzea.

Epaiketan Zuzeneko bi kidek eta Demoetako beste bik egin zuten berba; eta epaiketaren ostean, fiskalak hiru hilabeteko kartzela zigorra eskatu du . Zuzen eta Demo taldeak ordezkatzen dituen abokatuak, ordea, absoluzioa eskatu du, Frantzian onartu berri duten legean eta nazioarteko legediaren arteko kontraesanean oinarrituta. Behin betiko erabakia urriaren 18an jakingo dute.

**ELKARTASUNA**

Epaiketa hori dela eta, hedabide asko izan da Parisera; eta elkartasuna adierazteko, 42 lagunek egin dute bidaia autobusez. Debagoienetik 12 lagun joan dira eta gainontzekoak Donostiatik eta Baionatik. Trikitilari talde bat ere izan da bertan.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA | HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA | FACULTAD DE HUMANIDADES Y CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN

MASTER ETA ADITU TITULUA

Informazio eta komunikazioaren Teknologiak, prestakuntzari aplikatuta

Helburua: profesionalak prestatzea, ikastetxeetan lan egiterakoan gai izan daitezen informazioa eta komunikazioaren teknologiak era pedagogikoan erabiltzeko.

Nori zuzendua: hezkuntza-zientziak, psikologia, pedagogia, psikopedagogia, irakasle, informatika, soziologia, Humanitate-Enpresa arloetako unibertsitate titulудunentzat

Metodologia: masterra, auto-formazioan eta tele-formazioan oinarritzen da: masterrean, eskolen %15 bertaratu gabekoak izango dira; gainerakoak, Internet bidezkoak. Azken honetan, ikasleek tutoretza etengabe izango dute.

Eusko Jaurlaritzak homologatua

Dorleta z/g – 20540 ESKORIATZA
Tel.: 943 71 41 57

www.huhezi.edu

MONDRAGON UNIBERTSITATEA | HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA | FACULTAD DE HUMANIDADES Y CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN

PRESTAKUNTZA PEDAGOGIKOA IKASTAROA

Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta LHn derrigorrezko eskolak emateko

Helburua: bigarren hezkuntzan lan egin nahi duten lizentziadunei, didaktika eta psikopedagogia eremuetan oinarrizko prestakuntza ematea.

Beharrezkoa didaktikan Espezializazio titulua lortzeko, eta ezinbestekoa Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan eskolak emateko.

Eusko Jaurlaritzak homologatua

Dorleta z/g – 20540 ESKORIATZA
Tel.: 943 71 41 57

www.huhezi.edu

## LABUR

### Auto eta traktore karabana, Oñatiko hiltegitik abiatuta

Hiltegia Bizirik plataformak auto eta traktore karabana antolatu du urriaren 5erako, hiltegitik 16:30ean irtenda. Eskatu nahi dute Mankomunitateak hiltegiaren gaia behar den moduan aztertzea.

Hiltegiaren planean honako puntuak bermatzea eskatzen dute: gestio plana definitzea, gerente independentea kontratatzea, instalazioak berritzea, langile azpikontratatuen egoera finkatzea eta sektorearen parte-hartzea ziurtatzea .

# Kilometroak: Aretxabaletara autobusez joan beharko da

*Arrasate eta Eskoriatzatik autobusak ibiliko dira uneoro*

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Domekan Kilometroak direla eta, Pesa konpainiak autobus zerbitzu bereziak eskainiko ditu. Aparkalekuetatik ere autobus bereziak egongo dira. Zirkuiturako sarreran utzi eta hartuko dute jendea.**

Honako ibilbideetan ordutegi bereziak ipiniko dituzte domekako zerbitzuetan: Eibar-Soraluze-Bergara-Arrasate-Aretxabaleta bidea eta itzulerakoa egingo duten autobusak hogeita hamar minutuan behin egongo dira, puntako orduetan; Bergara-Arrasate-Aretxabaleta eta bueltakoa egiteko hamabost minutuan behin; eta Zumarraga-Legazpi-Oñati-Arrasate-Aretxabaleta ibilbidea, eta itzulerakoa egingo dutenak orduro irtengo dira.

Donostia-Aretxabaleta eta Bilbo-Durango-Elorrio-Aretxabaleta lineetan ere izango dira zerbitzu bereziak.

Donostia eta Bilbotik datozenek joan-etorriko txartela ohikoa baino merkeagoa izango dute. Ibarretik doazenek, ordea, betiko prezioan erosi beharko dituzte txartelak. Bergaratik eta Arrasatetik joanekoa euro bat izango da eta beste horrenbeste bueltakoa. Oñatikoek, berriz, 1,20 euro ordainduko dute txartela joanaldi bakoitzeko.

**APARKALEKUAK**

Aretxabaletara ez diete utziko sartzen autoei; beraz, Arrasaten eta Eskoriatzan egokitutako aparkalekuetan utzi behar dira. Guztira, 18.000 autorendako lekua dago lau gunetan. Horiek betez gero Bergarara eta Zubillagara bidaliko dituzte autoak.

Autoa aparkalekuetan utzi eta autobusez joan beharko da ibilbidera. Horretarako, 80 autobus ibiliko dira uneoro Arrasate eta Eskoriatzatik Aretxabaletara bitartean. Joan-etorria euro bat ordaindu beharko da, eta 14 urtetik beherakoek doan izango dute txartela. Aparkalekuetara itzultzeko azken autobusak 20:30ean irtengo dira zirkuitutik.

**Autobusak Oñatitik**

| Oñati irten | Arrasate | Aretx. iritsi |
|---|---|---|
| 09:00 | 09:15 | 09:25 |
| 10:00 | 10:15 | 10:25 |
| 11:00 | 11:15 | 11:25 |
| 15:00 | 15:15 | 15:25 |
| 16:00 | 16:15 | 16:25 |
| 17:00 | 17:15 | 17:25 |
| 18:00 | 18:15 | 18:25 |
| 19:00 | 19:15 | 19:25 |
| 19:30 | 19:45 | 18:55 |
| 21:00 | 21:15 | - |

**Itzulera Oñatirantz**

| Aretx. irten | Arrasate | Bergara iritsi |
|---|---|---|
| - | 08:40 | 09:00 |
| - | 09:40 | 10:00 |
| 13:30 | 13:40 | 14:00 |
| 14:30 | 14:40 | 15:00 |
| 15:30 | 15:40 | 16:00 |
| 16:30 | 16:40 | 17:00 |
| 17:30 | 17:40 | 18:00 |
| 18:30 | 18:40 | 19:00 |
| 19:30 | 19:40 | 20:00 |
| 20:30 | 20:40 | 21:00 |

**Autobusak Bergaratik**

| Bergara irten | Arrasate | Aretx. iritsi |
|---|---|---|
| 09:00 | 09:15 | 09:25 |
| 09:15 | 09:30 | 09:40 |
| 09:30 | 09:45 | 09:55 |
| 09:45 | 10:00 | 10:10 |
| 10:00 | 10:15 | 10:25 |
| 10:15 | 10:30 | 10:40 |
| 10:30 | 10:45 | 10:55 |
| 10:45 | 11:00 | 11:10 |
| 11:00 | 11:15 | 11:25 |
| 11:15 | 11:30 | 11:45 |
| 11:30 | 11:45 | 11:55 |
| 11:45 | 12:00 | 12:10 |
| 12:00 | 12:15 | 12:25 |
| 12:15 | 12:30 | 12:40 |
| 12:30 | 12:45 | 12:55 |
| 13:00 | 13:15 | 13:25 |
| 14:00 | 14:15 | 14:25 |
| 15:00 | 15:15 | 15:25 |
| 16:00 | 16:15 | 16:25 |
| 17:00 | 17:15 | 17:25 |
| 17:15 | 17:30 | 17:40 |
| 17:45 | 18:00 | 18:10 |
| 18:00 | 18:15 | 18:25 |
| 18:15 | 18:30 | 18:40 |
| 18:30 | 18:45 | 18:55 |
| 18:45 | 19:00 | 19:10 |
| 19:00 | 19:15 | 19:25 |
| 19:15 | 19:30 | 19:40 |
| 19:30 | 19:45 | 19:55 |
| 19:45 | 20:00 | 20:10 |
| 20:00 | 20:15 | 20:25 |
| 20:30 | 20:45 | 20:55 |
| 21:00 | 21:15 | 21:25 |
| 21:30 | 21:45 | - |

**Itzulera Bergararantz**

| Aretx. irten | Arrasate | Bergara iritsi |
|---|---|---|
| 08:30 | 08:40 | 08:55 |
| 09:00 | 09:10 | 09:25 |
| 09:30 | 09:40 | 09:55 |
| 10:00 | 10:10 | 10:25 |
| 10:15 | 10:25 | 10:40 |
| 10:30 | 10:40 | 10:55 |
| 10:45 | 10:55 | 11:10 |
| 11:00 | 11:10 | 11:25 |
| 11:15 | 11:25 | 11:40 |
| 11:30 | 11:40 | 11:55 |
| 11:45 | 11:55 | 12:10 |
| 12:00 | 12:10 | 12:25 |
| 12:15 | 12:25 | 12:40 |
| 13:00 | 13:10 | 13:25 |
| 14:00 | 14:10 | 14:25 |
| 15:00 | 15:10 | 15:25 |
| 16:00 | 16:10 | 16:25 |
| 17:00 | 17:10 | 17:25 |
| 17:15 | 17:25 | 17:40 |
| 17:30 | 17:40 | 17:55 |
| 17:45 | 17:55 | 18:10 |
| 18:00 | 18:10 | 18:25 |
| 18:15 | 18:25 | 18:40 |
| 18:30 | 18:40 | 18:55 |
| 18:45 | 18:55 | 19:10 |
| 19:00 | 19:10 | 19:25 |
| 19:15 | 19:25 | 19:40 |
| 19:30 | 19:40 | 19:55 |
| 19:45 | 19:55 | 20:10 |
| 20:00 | 20:10 | 20:25 |
| 20:15 | 20:25 | 20:40 |
| 20:30 | 20:40 | 20:55 |
| 20:45 | 20:55 | 21:10 |
| 21:00 | 21:10 | 21:25 |




ITVRRIETA
Sagardotegia· Erretegia



INAUGURAZIOA Maritxu Kajoi bezperan, urriaren 6an, 19.00etan

ESPEZIALITATEAK

- Arraina eta okela txingarretan erreta
- Txuletak
- Bildots-txuletak
- Solomilloa
- Bisigua
- Kokotea
- Lupia
- Erreboiloa

Karta, hasieran enkarguz

OSTEGUN-OSTIRALEKO MENU BEREZIAK

- Iturrieta entsalada
- Baba gorriak
- Menestra
- Onddo nahaskia
- Arrain zopa
- Piper beteak

—

- Bakailaoa pil-pilean
- Saiheskia txingarretan
- Txitxarroa txingarretan
- Solomilloa
- Txangurrua labean
- Magreta

—

- Txotx/Ardoa, postrea, kafea

21 € (BEZa barne)

SAGARDOTEGI MENUAK

Menu 1 35 €
- Txotx
- Bakailao tortilla
- Bakailaoa piperradan
- Zapoa
- Txuleta
- Postrea

Menu 2 30 €
- Txotx
- Bakailao tortilla
- Bakailaoa piperradan
- Txitxarroa
- Saiheskia
- Postrea

Menu 3 27 €
- Txotx
- Bakailao tortilla
- Bakailaoa piperradan
- Txuleta
- Postrea

Menu 4 24 €
- Txotx
- Bakailaoa piperradan
- Txitxarroa
- Saiheskia
- Postrea

Menu 5 21 €
- Txotx
- Bakailao tortilla
- Txitxarroa
- Saiheskia
- Postrea

ARRAGA AUZOA • ARAMAIO • Tel.: 945 44 53 85 / 605 70 64 51

BERGARA

## Antxon Sasiain presoaren aldeko mozioa onartu du udalbatzak

Antxon Sasiain presoaren aldeko mozioa onartu zuen udalbatzak astelehenean. Etxeratek aurkeztutako mozioa EAJ-EA eta Aralarren botoekin onartu zen. Sasiainen askatasuna eta estradituatua ez izateko eskaera jasotzen da onartutako testuan.

Sasiainek Bergaratik ihes egin behar izan zuen 1998an, eta 2002an atxilotu eta espetxeratu egin zuten. Hain zuzen, astelehenean beteko du kartzela zigorra Frantzian, Val de Reuil espetxean. Manifestazioa deitu dute astelehenerako Bergaran, 19:00etan. /E.M.




O.E.

OÑATI

## Euskaltegiaren egoitza berria inauguratu dute

Udal Euskaltegiak Bidebarrieta kalean du egoitza berria, eta eguaztenean inauguratu zuten, Pello Zabala frantziskotarraren bedeinkazio eta guzti. Roberto Altuna, Euskaltegiko zuzendaria; Jokin Azkue, HABEko zuzendaria; Andoni Gartzia, alkatea; Ainhoa Galdos, Euskara zinegotzia; euskaltegiko irakasleak; ikasleak; zinegotziak; gonbidatuak; dantzariak eta musikariak izan ziren Bedita Larrakoetxea euskaltegiaren inaugurazioan. Gitarra soinuarekin batera, euskaltegiaren ibilbidea gogoratu zuten guztiek kantuan. Aurten, 21. ikasturteari ekin dio euskaltegiak. Hiru irakasle daude eta maila guztietan erakusten dute euskara. Eraikinak 360 metro koadro ditu, eta, euskaltegiaz gain, herriko beste talde batzuek erabiltzeko aretoak ere badaude. /O.E.

ARETXABALETA

## 'Hitzak patriketan' antzezlanak irekiko du udazkeneko egitaraua

Udazkeneko egitaraua gertatzen dabil Loramendi Euskara Elkartea, eta Topaguneko Kultur Erroaren bitartez hainbat ikuskizun izango ditugu. Hurrengo egubakoitzean, urriak 7, umeendako *Hitzak patriketan* antzezlana aurkeztuko du Hankatxo taldeak. Urriaren 20an, bestalde, *Henry Bengoa inbentarium* antzezlana eskainiko du Kandido Uranga aktoreak.

Abenduan, ostera, Deja Bü txotxongilo taldearen ikuskizuna eta Kokein taldearen kontzertua izango ditugu aukeran. /M.A.

ANTZUOLA

## Bi bizikleta irteera antolatu ditu Arrolak urriaren 9rako

Datorren asterako, urriak 9, bi bizikleta irteera antolatu ditu Arrolak.

Batetik, Bardeetara joango dira; 12 urtetik gorakoendako bakarrik izango da irteera hori. 40-50 kilometroko itzulia egingo dute hantxe.

Bestalde, Gamarratik Landara bizikletaz joateko irteera ere antolatu dute, nahi duten guztiendako. Sei euro ordaindu behar da irteera bakoitzerako. Izena emateko martitzenean, hilak 4, duzue aukera, Arrolak Kalebarrenen duen egoitzan, 19:00etatik 20:00etara. /A.I.

ARAMAIO

## Zabola eta Untzilla auzoen arteko bide zatia konpondu egingo dute

Ezustekorik ezean, eguazteneko osoko batzarrak Zabola eta Untzilla arteko errepide zatia konpontzeko baldintzen plegua onartu zuen. Horrek esan gura du laster esleitu egingo dituela lanok eta laster hasiko direla errepideko zulotzarrak konpontzen. Are gehiago, Arabako Buletinean argitaratu eta 26 eguneko epea izango dute enpresek proposamenak aurkezteko, Udalak larrialdiko prozeduraz tramitatuko du-eta gai hori. Asko jota 87.350,34 euroko aurrekontua izango dute lanek. /U.M.

ELGETA

## Jazz Talde Berrien Lehiaketa urriaren 8an eta 9an Espaloia aretoan

Errabal Kultur Elkarteak antolatuta Debajazz jaialdiaren bigarren edizioa egingo da urrian. 2004ko udazkenean hasi zuten egitasmoa "jazzaldi xume bat etxean izateko helburuarekin", eta asmo horren jarraipena da oraingo jaialdia. Mutrikun, Deban, Eibarren, Elgoibarren... hainbat kontzertu izango dira. Baina aurten izango da berritasunik: Jazz Talde Berrien I. Lehiaketa.

Izena emateko epea amaitu da, eta 15 talde daude, Euskal Herrikoak zein kanpokoak; jazz eskoletakoak eta klubetan jarduten dutenak, gai propioak zein besteenak jotzen dituztenak.

Aukeraketa egindakoan, talde finalistak urriaren 8an eta 9an Espaloia Kafe Antzokian izango dira. Zapatuan 22:00etan hasiko da kontzertua eta domekan 20:00etan.

Lehiaketako irabazleak, diru saria eskuratzeaz gain, diskoa kaleratzeko aukera izango du.

**BILL EVANS**

Lehiaketako bi kontzertuez gain, Bill Evans musikari estatubatuarraren emanaldia ere izango da Espaloian Debajazz jaialdiaren baitan; hark itxiko du, hain zuzen ere, aurtengo edizioa. Bill Evansek konposatzeko eta inprobisatzeko abilezia erakutsiko du saxoarekin.

Kontzertua azaroaren 4an izango da, eta *Soulgrass* diskoa aurkeztuko du. Euskal Herrian egingo duen emanaldi bakarra izango da. Bertan jakinaraziko da Talde Berrien Lehiaketako txapelduna zein den. /I.A.

**Zertzelada**

**Egun bakoitzean bi taldek jardungo dute; irabazlearen izena azaroaren 4an emango dute aditzera, Bill Evans musikariaren kontzertuaren ostean**

ARRASATE

## Oraingoan, PPk salatu ditu "irregulartasunak" kultura etxeko lanetan

PSE-EEk joan den astean egindako salaketak berretsi eta gogor egin zuen PPko bozeramaile Itziar Lamarainek udal gobernu taldearen kontra. Osoko bilkura aprobetxatu zuen kultura etxeko lanetan "irregulartasunak" egin dituztela salatzeko. Esaterako, salatu zuen "inork" agindua eman barik dabiltzala argizulo zein frantziskotarren komentuan lanak egiten; eta kezka azaldu zuen lanon ondorioz izan den aurrekontuaren gorakadarekin: "Interes bakarra da jakitea zertan gastatzen dabiltzan zergadunen dirua".

Salaketen aurrean, alkateak aditzera eman zuen 10-15 egunean aurkeztuko dutela proiektu berria. /U.M.



U.M.

PPkoak aditzera eman zuen martitzenero dabilela salaketa berak egiten.

ESKORIATZA

## Bihar, zapatua, euskararen aldeko jaia egingo dute herriko plazan

Zapatuan *Ifini dantzan miñe, euskara plazara!* euskararen aldeko jaia egingo dute. Amuskak, gazte batzarrak eta Aitxorrotx elkarteak antolatu dute, Kilometroak jaiaren bezpera herrian girotzeko eta euskararen alde egiteko.

Plazako karpan garagardo jaia izango da arratsalde osoan. Horrez gain, bertsolariak, trikitilariak, afari-merienda eta capoeira erakustaldia ere egingo dituzte. Eguna bukatzeko, 22:00erako, Shaggy Daddy & The Troublemakers taldearen kontzertua antolatu dute gaztetxean. /I.B.

LEINTZ GATZAGA

## Gatzagarrek gaur erabakiko dute zer-nolako protesta ekimenak egin

Gatzagarrak gaur arratsaldean (egubakoitza, 18:30) batzartuko dira udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Ez da izango autobusik ez daukatela-eta egoera aztertzeko egingo duten lehenengo batzarra. Hemendik aurrera, baina, ez dira instituzioen erantzunen zain egongo, protestak egiten hasteko ordua dela erabaki dute.

Eta, hori da gaur arratsaldeko batzarrean erabakiko dutena: zer nolako protestak egin, eta mobilizazio horiek noiz egingo dituzten erabaki. /X.U.



GOIENKARIA

# Iñaki Txueka

GETARIAKO TXAKOLINA JATORRIZKO IZENDAPENAREN KONTSEILU ARAUTZAILEKO PRESIDENTEA

## “Gure zona nahikoa da dugun merkatu eta beharretarako, ez dugu hedatu beharrik”

### TXAKOLINA ARDOEN MERKATUAN

**“Burdeosek ia 15.000 hektarea aterako dituela esan du, eta ez da bakarra; merkatua izugarri mugitzen da eta berezia izatea da lehiatzeko modu bakarra, jai dago bestela”**

### TXAKOLIN EKOIZLEEN PROZESUAK

**“Prozesu bat egin dugu, merkatuan lekua egin dugu; beste prozesuak errespetatzen ditugu, baina uste dugu eurek bilatu behar dutela euren bidea, guri bakean utzita”**

Txakolina egiteko mahats bilketa aurreratu egin ei da aurten, eta horretantxe ari dira orain. Hori aitzakia hartuta, Getariako Txakolina denominazioaren inguruan galdetu gura izan diogu Iñaki Txuekari.

OIHANA ELORTZA

**Mahats bilketa amaitzen ari zarete dagoeneko, ezta?**

Duela bi aste inguru hasi ginen eta domekan amaitzea espero dugu. Normalean baino lehenago hasi gara aurten mahatsa biltzen, bero handiak egin ditu, euria ere bai abuztu bukaeran, eta azkarrago etorri da mahatsa.

**Zuendako, beraz, uda ona egin du.**

Oso ona. Negar pixka bat egitearren, hala ere, aproposena euria ekain eta uztail bitartean egitea izango zen.

**Txakolina egiteko mahatsa duten zenbat hektarea daude Getaria inguru horretan?**

225 hektarea, Getariako Txakolina Jatorrizko Izendapenaren barruan, hau da, Getarian, Zarautzen eta Aian. Aldatuta eta produkzioan dauden hektareak 180 bat izango dira, gutxi gorabehera. Gainerakoak gazteak dira oraindik edo aldaketa prozesuan daude.

Diote historian ez dela horrenbeste mahats hektarea egon. 1980. urtean, adibidez, 21 hektarea zeuden. Jatorrizko izendapena egin genuenean 100 inguru zeuden. Plan estrategiko bat egin genuen joan den urtean, jakiteko merkatuari begira zer lan izango genuen mahastien produkzioan. Gure merkatuaren arabera, 225,250 hektarea inguru dira jatorrizko izendapenean sartzen direnak. Bospasei urte barru ikusiko dugu merkatuak beste zerbait eskatzen duen edo ez, izugarri mugitzen da-eta, etengabe.

**Ze toki du txakolinak ardoen merkatuan?**

Ardoaren merkatuak denoi eragiten digu. Europan oso ardo onak daude eta Txile, Zeelanda Berria eta Australia ere, adibidez, ardo asko ari dira merkaturatzen. Bestetik, Europan birmoldaketa handiak egiten ari dira, nekazaritzak hainbat lan dituelako beste arlo batzuetan, abeltzaintzan, adibidez. Burdeosek duela gutxi esan duenez, ia 15.000 hektarea aterako ditu eta beste zona batzuetan ere zabaltzen ari da. Merkatuak markatzen du bidea eta horri begira kalkulatu ditugu 250 hektarea inguru behar ditugula. Mahasti ekoizleekin batera egindako azterketan ikusi dugu hori, sartu nahi duten inguruko beste ekoizleei ere sartzeko esanaz. Kopuru horretara iristeko falta zaizkigun hektarea horiek lauzpabost urte behar dituzte oraindik produkzio nagusira heltzeko.

**Zonan dauden hektareak sar daitezke bakarrik, ala baita Debagoienekoak ere, adibidez?**

Jatorrizko Izendapena lortzeko eskatzen ziguten baldintza bat zen jarraian zegoen zonaldeko lurrak, mahastiak, izan behar zutela denominazioan sartzeko. Elgoibar eta Bergara aldean, adibidez, baziren mahasti txiki batzuk, baina horren izendapen txiki baten, ezin zen 60-70 kilometroko distantziarik egon.

**Horrela da oraindik?**

Uste dut dagoeneko hori ez dela baldintza. Dena dela, guk ikusten dugu geurea nahikoa dugula dugun beharretarako eta zabalkunderako. Besteen prozesua beti errespetatu izan dugu, baina iruditzen zaigu munduan ez dagoela horren izendapen txikirik horren kilometro gutxitan. Prozesu bat egin dugu, merkatuan lekua egin dugu eta uste dugu hau dela gure heldutasun puntua. Esan bezala, beste prozesuak errespetatzen ditugu, baina uste dugu eurek bilatu behar dutela euren bidea, guri bakean uzteko esaten diegu.

**Zeuonari eutsi nahi diozue?**

Inori baietz edo ezetz esan gabe. Hemendik aurrera dugun bidea ere zaila da; merkatu helduan prozesuak oso delikatuak dira. Gure merkatu eta aukeren arabera ditugu produkzioa eta hektareak eta faktore horiek gure zonan ditugu, ez dugu hedatu beharrik. Gure helburuei begira ikusiko bagenu produkzioa bikoiztu behar dugula edo lursailik ez legokeelako zabaltzea planteatuko balitz, inguruko herrietan pentsatuko genuke eta eztabaida gogorra izango genuke nor sartu eta nor ez erabakitzeko orduan. Zumaia, Deba, Mutriku, Orio, Usurbil, Donostia, Hondarribia eta barrualdeko mahastiak daude, adibidez, eta erabaki beharko litzateke zergatik batzuk bai eta zergatik besteak ez. Guk ez dugu handitu beharrik, baina neurri batean handitu nahi bagenu ere, bertan ditugu aukerak.

**Beste izendapen bat sortzea da, adibidez, besteek egin behar dutena?**

Hori ez da erraz egiten. Prozesu historiko eta langintza sakonaren ondorioa da. Getariako txakolinaren datuak, adibidez, 1500. urtera arte heltzen dira eta oraingo txakolinaren prozesuak 30-40 urte eraman digu.

Mahastien mundua oso araututa dago eta ezin dituzu aldatu baimenik ez badago. Hainbat prozesu jarraitu behar dira. Konplikazio handiak daude eta guk ez dugu gura besteen arazoak jasotzea, guri ez zaizkigulako egokitzen.

**Nola ikusten duzu Bizkaiko Txakolina?**

Hektareak, gutxi gorabehera, guk beste ditu, baina oso banatuta zeuden eta upelategi gehienak txikiak ziren. Gaur egun prozesu txukun eta interesgarrian daude, upelategiak elkartzeko prozesuan, nolabait. Txakolin onak probatu ditut.

**Debagoienekoa probatu duzu inoiz?**

Probatu dut, bai. Gertatzen dena da beste arazo batzuk dituztela hor.

**Zergatik sortu zenuten Getariako Txakolina Jatorrizko Izendapena?**

1982an, gutxi gorabehera, elkarte bat sortu genuen ikusten genuelako txakolinak egitura txarrak zituela, inbertsiorik ez zela egiten eta, beraz, ez zuela etorkizun onik. Edariak prestigioa izatea lortu zen, baina garatzeko aukera gutxi zeuden. Akordio batzuk lortu genituen instituzioekin eta 1987-1988 inguruan jatorrizko izendapen bat lortzeko beharra ikusi zuen elkarte honek, eta 1989an sortu genuen.

**Zenbat txakolingileren artean banatzen dira aipatutako 225 hektareak?**

17 upelategi daude. 100 bat lagun bizi dira gaur egun txakolin mundutik. Batzuk upelategi horietakoak dira, 60-70 lagun, eta beste batzuek euren produkzio propioa dute eta akordioak dituzte upelategiekin.

**Kooperatibarik badago?**

Ez. Eztabaida hori izan genuen duela 20-25 urte inguru, Jatorrizko Izendapena sortzeko garaian. Baserritar bakoitzak bere lurrak zituen, batzuk elaboratzen hasita zeuden ordurako eta erabaki genuen ez egitea. Elkarteak badaude, baina kooperatiba ez. Elkartzen gara guztion interesak, promozioak, ikerketak eta beste hainbat gairi buruz hitz egiteko eta erabakiak hartzeko, baina erabaki genuen nork bere mahastia landuko zuela.

**Zenbateko produkzioa duzue eta non merkaturatzen duzue?**

Txikienak 60.000 bat botila egiten ditu eta bizpahiru lagunek egiten dute lan. Handienetan, berriz, 10-12 langilek dihardute eta 400.000 botila inguru ekoizten dituzte, gutxi gorabehera.

Merkatuari buruz, guretako Gipuzkoa da etxeko merkatua, banaketa zuzenean egiten dugun merkatua. Euskal Herriaz gain, Madril, Bartzelona, Andaluzia eta beste lurralde batzuetara ere heltzen da. Baita Frantzia, AEB, Alemania eta Ingalaterrara ere, adibidez. Ardo zuri berezi moduan saltzen dute lurralde horietan txakolina.

**Eta ze berezitasun du zuen txakolinak besteek ez dutena?**

*Hondarribi zuria* izeneko mahatsa dugu eta zonalde honetan aukera dauka gradu zein garraztasun egokiak lortzeko, biak batera. Mahats hori ondo landu behar dira gero, baina gero eta globalagoa den gizarte honetan, batzuen gustukoa izatea lortzen duzu eta berezia izatea lortu duzu. Merkatu honetan lehiatzeko, berezia izan behar duzu, bestela jai dago.

# *Gutunak*

## Antxon, torturatua izateko arriskuan

Antxon Sasiain preso politiko bergararra urriaren 3an estraditatuko dute Frantziako Estatutik Espainiakora. 1997an herritik alde egin ostean, 2002ko azaroaren 17an atxilotu zuen frantziar poliziak. Hasieran, Parisko La Santé-ko espetxean egon zen; ondoren, Osny-n, eta gaur egun Normandian dagoen Revil Cedéx-eko espetxean aurkitzen da, eta bertan dagoen euskal preso politiko bakarra da.

Espetxean daraman denboran hainbat ekimen burutu ditu euskal presoek jasaten dituzten eskubide murrizketak salatu eta beraien eskubideak aldarrikatzeko.

Hurrengo urriaren 3an, Frantziako Estatuan bete beharreko kondena amaituko du eta Espainiako Estatura estraditatua izango da.

Estradizioa salatzeko hainbat ekimen antolatu ditugu astean barrena eta astelehenerako, urriaren 3rako, mobilizazio eguna deitu dugu. Egun horretan, arratsaldeko 7etan, manifestazioa egingo da Bergarako kaleetan barrena. Estradiziorik ez!

BERGARAKO ASKATASUNA
Bergara

## Denon konpromisoarekin lortuko dugu!

Abian jarri da kurtso berria, eta beraz lanari berriz ere ekin beharra. Baina bagaude oporrak izan ez ditugunak; izan ere, urte osoan zehar bezala gure senide presoak ikusteko bidaiatzen egon gara. Gogorra da maite duzun pertsona zugandik milaka, ehunka kilometrora egotea eta berarekin berrogei minutu igarotzeko izugarrizko dirutza gastatu beharra.

Baina are gogorragoa da sakabanaketarekin jarraituko dela entzutea gizartearen segurtasunerako (Gallizorekin hitzak dira horiek), eta gure segurtasuna? Eta gure eskubideak? Astero-astero gure bizia errepidean arriskatzen dugu, horrela gabiltza urteak eta urteak. Aurkezten zaigun egoera gogorrenari, bortitzenari aurre eginez, nekea, tristura, beldurrak bide lagun ditugula baina hala ere ilusio osoarekin, gureak egunen baten etxean, aske ikusiko ditugun ilusioarekin!

Eta horretarako behar-beharrezkoa da denon lana, presoen gaia ez delako soilik familien, lagunen arazoa, herri oso batena baizik. Herri honek 700 herritar ditu espetxeraturik, eta horrek agerian uzten du denon eskubideak ez direla bermatzen. Gatazkaren konponbidea demokratikoa, behin betikoa izan behar du, guztion parte-hartzearekin eta politikoa, jatorria horrelakoa delako. Horregatik ezinbestekoa da gure senide errepresaliatuen izaera politikoa onartzea, aitortzea. Ezinezkoa da gure senide eta lagunen jarduera eta bere ondorioak ulertzea izaera politikoa kontuan hartu gabe.

Emakume eta gizonezko hauek dira bakea lortzeko interes handiena dutenak, gatazkaren parte eta ondorio baitira. Benetako bake prozesu bat emateko ezinbestekoa da denon hitza entzutea, eta beraien parte-hartzea bake prozesua bide onetik doan berme izango da. Horregatik edozein eztabaida, prozesu aurrera joateko ezinbestekoa da Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren ekarpena, parte-hartzea.

Senideei ezartzen zaigun dispertsio izeneko zigor krudel, anker honekin amaitu beharra dago, lehenbailehen, horrek ezin dezake gehiago itxaron, behar-beharrezkoa dugu, hil ala bizikoa da. Horregatik, datorren ostiralean, hilaren 30ean, Etxerat elkarteak hileko azken ostiralero egin ohi duen bezala, Euskal Herriko herri guztietan egingo diren elkarretaratzeetan parte hartzeko gonbita luzatzen dizuegu. Denon konpromisoa delako!

Estatus politikoa orain! Euskal presoak Euskal Herrira!

IRATI ARANZABAL (ETXERAT)
Debagoiena

## Denborak gauzak bere tokian jartzen ditu

Irailaren 13an Oñatiko ezker abertzaleak herriko gazteriari buruz hitz egiteko (eta ez Gaztetxeari buruz) antolaturiko agerraldi publikoan esandakoaren aurrean, Oñatiko EAJ-EAren gobernu taldearen aldetik erantzuna (nahiz edukia subjektiboki ulertu) izatea poztekoa da guretzat; era horretan hainbat argipen egiteko aukera dugu.

Prentsaurreko horretan, ezker abertzaleak gazteriaren inguruan instituzio ezberdinen aldetik martxan jarri behar den benetako politika aldarrikatzeaz gain, Gaztelekuaren egoeraren zein ireki berri den Gaztetxearen inguruko iritzia eman zuen; baita EAJk urteetan mantenduriko politikaren gainean ere; Kasablanka bezalako auzoak gure herrikoak direla ez ahazteko bukaeran aipatuz (05/09/20an udal erregistroan aurkezturiko idatziarekin bat etorriz). Eta, noski, gaurko egunean bat gatoz esandako guztiarekin.

Adierazi nahi dugu Oñatiko gobernu taldearen prentsa oharra (edo iritzi artikulua) ez dela batere zehatza (errespetuz hitz egiten). Demagogotzat jotzen gaituzte, gure ardurei aurre ez egiteaz ere, gure iritzia emateko komunikabideen erabileraz... Baina, gu ez gara beraien joko horretan eroriko, ezta beraien argudioak erabiliko ere (ez datozenak errealitatearekin bat) gure arerio politikoa desprestigiatzeko, azken hau ez delako gure tankera. Ezker abertzalea, bere ibilbide osoan erakutsi duen gisa, gardentasunean eta zintzotasunean oinarritu da, bere alderdikeria zein komenientzia pertsonalak kontuan izan gabe. Eta pertsonak garenez, batzuetan asmatzen dugu eta beste batzuetan huts egiten dugu. Beste batzuk, ordea, ez omen dira bertute horren jabe eta egiten duten guztian asmatzen dute.

EAJ-EAren gobernu taldeak ez du egia esaten agintaldi honetan pare bat Gazte Batzordetan parte hartu dugula aipatzen duenean. Oñatiarroi ezagutzera eman nahi diegu bilera gehienak astean zehar eta arratsaldeko lehen orduetan egiten direla (erabakia guri galdetu gabe hartu zelan —ez da batzorde bakarra lan orduetan egiten dena—) eta ordu horretan gure ordezkaria lanean dago (berak ez ditu gainontzeko zinegotzi legalek dituzten erraztasunak); baina gure egingizuna da argitzea bere lan eguna amaitzean gazte teknikariarekin biltzen dela azaldu diren gaiez hitz egiteko eta hauen jarraipena egiteko. Udal langile hau esandakoaren lekuko zuzena da. Beraz, errespetu pixka bat, gehienbat agintaldi honetan 1.600 oñatiarron borondatea egunero erasotzen ari zaretenean. "No hay más ciego que el que no quiere ver", dio gaztelerazko esaera batek eta badirudi norberaren etxean dauden gabeziak gordetzeko, arerio politikoa iraindu behar dela. Estrategia makiabeliko hau erabili ordez, zergatik ez dugu gure etxera begiratzen, batzar ezberdinetan parte hartu behar duten zinegotzien asistentziaren inguruan onarturik dugun arautegia betez? Edo bide zuzena badaramazue eta zuen kontzientziak lasai badituzue, zergatik alkateak jaietako egitaraua aprobetxatuz "...zuen konfiantza eta botoek ematen duten zilegitasunarekin..." gogoratzen digu?

Bai, bat gatoz gazteriaren gaia delikatua eta koska asko dituela esaterakoan; baita elkarbizitzarako oinarrizko arauak zein legeak aipatzen ditugunak errespetatu behar direla aditzerakoan ere (eta horrela errepikatu diegu behin eta berriro gazteei, azken hilabeteotan beraiekin egindako bilkuretan). Gurasoak gara. Gure herriaren etorkizuna sektore honetan kokatua dagoela kontziente gara eta gure ardura (berdin ikastetxeena...) pertsona gisa eratzea da. Honoko hau da gure egingehar nagusienetarikoa. Beraz, demagogia bezalako hitzak soberan daude eta gure kode deontologikoan ez dute lekurik.

Amaitzeko, lau haizeetara egin duzuen deiak ez du zentzurik, eztabaidaren zati bat garelako. Guk, ordea, dei serio bat egin nahi diegu bai gobernu taldeari, baita gainontzeko alderdi politiko zein agente sozialei ere, ez dugulako ezer ezkutatzeko eta gardentasuna gure urrezko araua delako: inplikatu guztion artean leku neutral bat aukera dezagun eta Oñatiko herriaren aurrean ezbai publiko bat antola dezagun.

Gure aldetik polemika hau amaitutzat jotzen dugu. Lanean segi dezagun gai hau eta gure mahai gainean ditugun gainontzekoei irtenbideak emanez. Gure aurka publiko egin diren salakuntzen aurrean argipen xume hauek eman nahi genituen; era berean, gazteriari bere bide propioa eratzeko animatuz. Era berean, egun hauetan jaso ditugun elkartasun keinuak eskertu nahi ditugu.

OÑATIKO EZKER ABERTZALEA
Oñati

## Azalpena

Joan zen asteko GOIENKARIAn, 2005eko irailaren 23an banatu zena, erreportaje bat agertu zen bigarren eta hirugarren orrietako *Asteko gaia*-n, izenburu honekin: *Eskoletako jangelak. Goraka doan zerbitzua*. Artikulu horren inguruan, honako hau azaldu nahi dugu:

Artikulua egiteko galdeketa jaso genuenean, ez genuen uste datuak horrela agertuko zirenik, baizik eta azalpen gehiagorekin. Horregatik, uste dugu guk emandako datuei azalpentxo bat falta zaiela.

Hasteko, esango dugu bi jangela ditugula, bata 0-4 urte bitartekoentzat eta bestea 5-18 urte bitartekoentzat. Prezioei dagokienez, ondorengoak dira: 1-2 urtekoendako, 4,00 euro; 2-3 urtekoendako, 4,25 euro; eta, beste guztiak, hileko 82,00 euro, hau da 4,60 euro eguneko. Artikuluko taulan agertzen den eguneko prezioa, 5,10 euro, jangela egun solteetan erabiltzen dutenentzat da.

AINHOA GARMENDIA
(ELKAR HEZI IKASTETXEA)
Oñati

### Telefono berriak GOIENKARIAn

Telefonoak aldatu ditugu GOIENKARIAren Bergarako egoitzan. Horrenbestez, aurrerantzean hauxe izango da GOIENKARIAko telefonoa: 943 25 05 01. *Berrigara*-koa, ostera, hau: 943 25 05 02. Eta bai GOIENKARIAko zein *Berrigara*-ko faxa, beste hau: 943 25 05 13.

GOIENKARIA

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza, Amaia Mundiñano eta Itxaso Berezibar
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

IEFPS Aretxabaleta GLHBI

AENOR ER Empresa Registrada ER-1028/2002 IQNet

**Euskal Herriko Lanbide Kualifikazioen Sistemari lotutako Etengabeko Formakuntzako Ikastaroak**
**LANEAN ARI DIREN LANGILEEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK (%100-a subentzionatuta)**

| IKASTAROA | ORDUAK | HASIERA | BUKAERA | ORDUTEGIA |
|---|---|---|---|---|
| **FABRIKAZIO ELEKTROMEKANIKOA (2. maila)** | | | | |
| **• Modulua: Fabrikazio mekanikoko makinen prestaketa eta programazioa (275 ordu)** | | | | |
| CNC tornuaren programazioa | 40 | 05/11/07 | 05/11/24 | 17:00 – 20:30 |
| CNC tornuaren prestaketa eta programazioa | 40 | 05-11-28 | 05-12-22 | 17:00 – 20:30 |
| CNC fresatzeko makinaren programazioa | 46 | 06-02-14 | 06-03-09 | 17:00 – 20:30 |
| C.N.C. fresatzeko makinaren prestaketa eta programazioa | 46 | 06-03-14 | 06-04-04 | 17:00 – 20:30 |
| **• Modulua : Fabrikazio makanikoko sistema osagarriak (110 ordu)** | | | | |
| PLCen programazioa | 60 | 06-01-11 | 06-02-09 | 17:00 – 20:30 |
| Roboten programazioa | 20 | 06-02-20 | 06-03-02 | 17:00 – 20:30 |
| **• Modulua : Txirbil-harroketa bidezko fabrikazioa (300 ordu)** | | | | |
| CNC tornuko mekanizazioa | 50 | 06-01-16 | 06-02-08 | 17:00 – 20:30 |
| CNC fresatzeko makinako mekanizazioa | 50 | 06-04-25 | 06-05-18 | 17:00 – 20:30 |
| **• Modulua : Mekanizatutako produktuaren ezaugarrien kontrola ( 75 ordu)** | | | | |
| Egiaztapen dimensionala | 40 | 06-01-23 | 06-02-13 | 17:00 – 20:30 |
| Saiakuntza suntsitzaileak eta ez-suntsitzaileak | 40 | 06-02-20 | 06-03-14 | 17:00 – 20:30 |
| **• Modulua : Automatismo elektrikoak, pneumatikoak eta hidraulikoak (185 ordu)** | | | | |
| Automatismo pneumatikoak eta elektropneumatikoak | 40 | 05-11-02 | 05-11-22 | 17:00 – 20:30 |
| Automatismo hidraulikoak | 36 | 05-11-28 | 05-12-22 | 17:00 – 20:30 |
| Automatismo programagarriak | 40 | 06-03-13 | 06-03-30 | 17:00 – 20:30 |
| **METAL-ERAIKUNTZAK (2. maila)** | | | | |
| **• Modulua : Giro naturaleko soldadura ( 310 ordu)** | | | | |
| Elektrodo estali bidezko angeluko soldadura | 80 | 05-01-13 | 05-11-11 | 17:00 – 21:00 |
| Elektrodo estali bidezko topekako soldadura | 80 | 05-11-16 | 05-12-20 | 17:00 – 21:00 |
| Elektrodo estali bidezko beste posizio batzuetako soldadura | 80 | 06-02-01 | 06-03-06 | 17:00 – 21:00 |
| **• Modulua : Giro babestuko soldadura (215 ordu)** | | | | |
| Posizio horizontaleko MIG / MAG soldadura | 50 | 06-01-11 | 06-01-26 | 17:00 – 21:00 |
| Beste posizio batzuetako MIG / MAG soldadura | 50 | 06-03-13 | 06-03-30 | 17:00 – 21:00 |
| Posizio horizontaleko TIG soldadura (1)° | 50 | 06-04-03 | 06-05-03 | 17:00 – 21:00 |
| Beste posizio batzuetako TIG soldadura | 50 | 06-03-08 | 06-05-25 | 17:00 – 21:00 |
| Posizio horizontaleko TIG soldadura (2) | 50 | 06-05-29 | 06-06-15 | 17:00 – 21:00 |
| **METAL-ERAIKUNTZAK (3. maila)** | | | | |
| **• Modulua : Metal-eraikuntzen irudikapena (240 ordu)** | | | | |
| CAD. Metal-eraikuntzen irudikapena (Solid Edge) | 60 | 05-11-14 | 05-12-19 | 17:00 – 20:30 |
| **TRESNERIA ELEKTRONIKOAK (2. maila)** | | | | |
| **• Modulua : Soinu tresneria (150 ordu)** | | | | |
| Soinu-instalazioak muntatzea eta mantentzea | 70 | 06-01-10 | 06-02-14 | 17:00 – 20:30 |
| **• Modulua : Telebista tresneria (170 ordu)** | | | | |
| Telebista-seinaleak banatzeko sistemak muntatzea eta mantentzea | 80 | 06-02-20 | 06-03-28 | 16:45 – 20:45 |
| Telebista-tresneria mantentzea | 80 | 06-04-03 | 06-05-22 | 16:45 – 20:45 |
| **• Modulua : Oinarrizko instalazioak (110 ordu)** | | | | |
| Etxebizitzen eta merkataritzako lokalen barruko instalazioak | 60 | 05-11-14 | 05-12-22 | 17:00 – 20:00 |
| **AUTOMOZIOA ( 2. maila)** | | | | |
| **• Modulua : Motorren sistema osagarriak (270 ordu)** | | | | |
| Motor termikoen diagnosia eta autodiagnosia) | 30 | 06-01-16 | 06-02-01 | 17:00 – 20:00 |
| **• Modulua : Ibilgailuen zirkuitu elektriko osagarriak (150 ordu)** | | | | |
| Eskema elektrikoak, oinarrizko sinbologia, berariazko sinbologia eta kode normalizatuak interpretatzea-Multiplexazioa | 40 | 05-11-21 | 05-12-20 | 17:00 – 20:00 |
| **KATALOGOTIK KANPOKO ETENGABEKO FORMAKUNTZAKO IKASTAROAK** | | | | |
| Solid Works | 60 | 06-01-31 | 06-03-02 | 17:00 – 20:30 |
| Autocad 2005 | 60 | 06-03-07 | 06-04-04 | 17:00 – 20:30 |

INFORMAZIO GEHIAGO ETA INSKRIPZIOAK: IEFPS Aretxabaleta GLHBI , Etxebarri auzoa, z/g Tfn.: 943 79 79 00

EUROPAR BATASUNA
Europako Gizarte Funtsa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HOBETUZ
Fundación Vasca para la Formación Profesional Continua
Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa

# Trebeena izotz gainean snow egiten

## Jon Sanchez arrasatearra izan da Oviedon egin duten Cab5 Rail-box txapelketan onena

XABIER URTZELAI

**Joan den astean, 25 graduko tenperaturarekin eta Oviedo San Mateo jaietan murgildu-ta, herriko parkeetako bat elurtuta "azaldu" zen. Lehenengo aldiz egin zuten Cab5 rail-box txapelketa, eta arrasatear bat nabarmendu zen 80 parte-hartzaileren artean: Jon Sanchez.**

"Txiripaz hartu genuen esku snow txapelketan, izena emateko epea agortuta zegoelako. Baina, antolatzaileetako bat laguna da, eta hari eskerrak". Jon Sanchez, *Abuelo* gaitzizenaz ezaguna, Ederrekin, Ortuetarekin eta Asier Altuna *Txokito*-rekin joan zen Asturias aldera. "Kanpin dendan igaro genuen gaua, Oviedoren erdian, eta hurrengo egunean parkera gerturatu ginen. Oso arraroa zen, elurrik egon barik gu snowa egiteko arropekin geundelako. Halako batean, baina, izotzez betetako kamioiak etorri, eta antolatzaileek berehala eraiki zuten snow parkea".

Txapelketaren berri eman digu *Abuelo*-k: "Beroketa ariketak egin eta lehenengo kanporaketak egin genituen. 80 parte-hartzaile geunden, eta 20 sailkatu ginen azken txanparako. Eta, 20 horien artean neuk eskuratu nituen puntu gehien". Txapelketan, hainbat gune zeuden *box*, *rail* eta *wall* ezberdinekin, eta gune bakoitzak epaile propioa zuen. Probak aurrera egin ahala, izotzak ez zuen behar beste iraun, baina antolatzaileek aurreikusita zuten hori, eta berehala ekarri zuten beste kamioi bat.



XABIER URTZELAI
Arrasateko lagunek lokatzez zikinduta ekarri dituzte taulak Oviedotik.

**ASPALDI IBILI BARIK**

Uda partean astebete egin du Alpeetan, baina gutxi ibili da: "Trukuak eta horrelakoak behar den moduan egiteko egun batzuk egin behar dira taula gainean; elurretan ibiltzera ohitu, materialari eskua hartu... Gainera, aurtengo negua neuretako ez da oso ona izan; proba irabaztea ezustekoa izan da".

**BEHARBADA, ARRASATEN**

"Bero-bero eginda etorri gara Asturias aldetik, eta hangoa antolatzen ibili diren lagunei eskatu diegu horrelako bat egiteko behar den guztiaren gaineko informazioa bidaltzeko. Geure asmoa da datorren urteko San Juanetan horrelako txapelketa bat herrian antolatzea. Sekulakoa izango litzateke, eta inguruko jendea gertu dago laguntzeko. Badakigu ez dela kanpotik pentsa daitekeen bezain garestia. Moduluak lortu beharko genituzke, eta baita izotza ere, baina posible da egitea. Geure asmoa da Udalari aurkeztea txosten bat, eta ikustea zenbateraino laguntzeko gertu dauden.

Txapelketan materiala irabazi du *Abuelo*-k eta baita markaren batekin lan egiteko aukera ere: "Neguan Andorran ibiliko naiz, Soldeu-n. Ondo pasatzeko eta ikasteko asmoarekin noa".

## Kirolabur

**ARRASATE/**TRIALA

Domekarako, Euskadiko Txapelketarako baliagarria den trial proba antolatu du Arrasateko Motozale Elkarteak.

Proba hori Udalan egingo dute, 10:00etan, eta antolatzaileek 38 pilotu etorriko direla aurreikusten dute. Maila txikietakoak, amateurrak eta beteranoak izango dira lehian.

**ARRASATE/**PILOTA

Gaur, egubakoitza, Ordago enpresaren eskutik pilota jaialdia izango da Uarkape pilotalekuan (22:30).

Partidu nagusian Mikel Goñi ikusi ahal izango dugu Lazkano arrasatearrarekin bikotekide. Euren kontrarioak, Xabier Ubera elgetarra eta Medina. Lehenago, baina, Torre III.a eta Gernika pilotariak izango dira lehenengo bost koadroetan lehian.

**DEBAGOIENA/**FUTBOLA

Oriokoren zelaira joango da Aretxabaleta (domekan, 17:00). Eta, Lesakara joango da Mondra, Beti Gazteren kontra jokatzera (zapatuan, 17:00). Aloña Mendik, berriz, Zestoa izango du bisitari (zapatuan, 17:00).

Erregionalean, Amaikak Bat talde debarra izango da Agorrosinen (zapatuan, 16:00).

# Kirol hezigarria, umearen eskubidea

## Umearen hezkuntzaren zati bat da eskola kirola

Kirola egitearen alde onak asko dira, baina eskola kirolaren onura ez da fisikoa bakarrik. Umearen hezkuntzaren zati bat da eskola kirola eta garrantzi handia du.

**DEBAGOIENEKO ANTOLAKETA**

Lurralde guztietan antolatzen dute eskola kirolaren egutegia ikastetxeen ikasturteekin batera. Gipuzkoako antolaketa, ordea, ezberdina ei da gainerakoetatik. Ikuspegi hezitzailean dago oinarrituta eskola kirola Gipuzkoan eta horixe da helburua, umearen edo gaztearen hezkuntzan parte hartzea, heziketaren osagarri izatea.

Udaletako eta ikastetxeetako ordezkariek hartzen dute parte eskola kirolaren planteamendua egiteko eta egutegia eta bestelakoak zehazteko.

Debagoienean, adibidez, hiru talde daude eskualdeko eskola kirola antolatzeko: Bergarako Eskola Kirol Kontseiluak Bergara, Antzuola eta Elgetako ardura du; Leintz Eskola Kirolak Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Aramaio hartzen ditu eta Oñatiko taldea, berriz, Oñatiko eskola kirolaz arduratzen da.



MANKOMUNITATEA
Eskola kirolaren eskaintza zabalean hainbat kirolek dute lekua.

**Debagoienean hiru talde daude**

**Ikuspegi hezitzailean oinarritzen da**

**HIRU PROGRAMA**

Debagoieneko hiru talde horiek hiru programa dituzte eta E-1 izenekoak jasotzen ditu, hain zuzen ere, eskola kirolaren onurak: fisikoak, psikologikoak, sozialak eta hezitzaileak dira eskola kirolaren onurak. Ikuspegi hezitzailean dago oinarrituta eta eskaintza zabala ematen du umea balioetan hezteko: kiroltasuna, aniztasuna, autokontrola, talde lana eta beste hainbat balio.

**IZENEMATEA ZABALIK**

Eskola kirola ikasturtean zehar egiten den ikasgai bat da, heziketaren osagarria da. Eskaintza zabala izaten da eta umeak erabaki dezake zein kirol egin. Eskola kirola egiteko izena eman behar da eta epea zabalik dago oraindik. Datorren hilean ere, urrian, zabalik egongo da.

Gipuzkoan, 8 eta 14 urte bitarteko umeen %75 inguruk egiten du eskola kirola. Debagoienean ere asko apuntatzen dira urtero.

**KIROL ZERBITZUEN BERRIAK JASOTZEKO:**

| | |
|---|---|
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Bergara | 943 77 91 67 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua

# Etxean konposta egin nahi duzu?

Leintz-Gatzagan, Eskoriatzan, Aretxabaletan, Arrasaten, Oñatin, Bergaran, Elgetan edo Antzuolan bizi zara?

**Debagoieneko Mankomunitateak**
***Etxean konposta egiteko proiektua***
**jarriko du martxan urrian.**

Bizitza bakarreko etxe batean bizi bazara eta lorategia baduzu, edo lursail bat, edo antzerako zerbait, deitu ezazu
Debagoieneko Mankomunitatera eta har ezazu parte.

**Epea urriaren 7a. Plaza mugatuak (50).**

**Informazio gehiagorako:**
**Debagoieneko Mankomunitatea.**
**Arrasate Pasealekua, 5 behea.**
**20500 Arrasate.**
**Tel.: 943 79 33 99.**

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA






www.kutxa.net

kutxa
zure diruaren balio erantsia

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko irailaren 30a

# AZAROA ETA ABENDUA 2x1

Salmenta aldi bakarra irailaren 19tik 26ra.

Aprobetxatu aukera! Eskaintza urriak 1era arte luzatzen da

HOTELAREN IZENA MOMENTUAN EMANGO DIZUGU

## KANARIAK — 8 egun / 7 gau

### TENERIFE

| Hotela | | 1 PER. | LAGUNA |
|---|---|---|---|
| VALLE LUZ 2LL APTU | OB | 378 | DOAN |
| | HG | 418 | DOAN |
| CHIMISAY*** H / PEZ AZUL 3LL APTU / MARQUESA / CONDESA*** H | ME | 498 | DOAN |
| | MO | 558 | DOAN |
| BONANZA PALACE**** H / CONCORDIA PLAYA**** H | ME | 618 | DOAN |

### TENERIFE HEGOALDEA

| | | | |
|---|---|---|---|
| FIESTA OASIS PARAISO*** H / GREEN PARK 3LL APTU | ME | 558 | DOAN |
| FIESTA PARAISO FLORAL*** H | GB | 718 | DOAN |
| TENERIFE GOLF**** H | ME | 578 | DOAN |
| PARADISE PARK****S H | ME | 818 | DOAN |
| ISLA BONITA****S H | GB | 998 | DOAN |

### LANZAROTE

| | | | |
|---|---|---|---|
| LOS NARANJOS 2LL APTU | OB | 438 | DOAN |
| BARCELO LA GALEA *** H / LOS FISCOS *** APTU / GALEÓN PLAYA *** H / FLORESTA 3LL APTU | ME | 618 | DOAN |
| PARADISE ISLAND*** APTU | GB | 798 | DOAN |
| BARCELO LANZAROTE**** H / MARINAS CLUB RESORT**** H / BEATRIZ PLAYA **** H / BEATRIZ COSTA & SPA **** H | ME | 698 | DOAN |
| PAPAGAYO ARENA**** H | GB | 898 | DOAN |

### FUERTEVENTURA

| | | | |
|---|---|---|---|
| CASTILLO DE ELBA*** H | OB | 478 | DOAN |
| | ME | 638 | DOAN |
| TOFIO *** H | GB | 778 | DOAN |
| ARENA**** H / SUNRISE TARO BEACH **** H | ME | 698 | DOAN |
| SUNRISE COSTA CALMA**** H / DRAGO PARK**** H | GB | 938 | DOAN |

### KANARIA HEGOALDEA

| | | | |
|---|---|---|---|
| BEVERLY PARK*** H | ME | 698 | DOAN |
| | OB | 778 | DOAN |
| GLORIA PALACE S. AGUSTIN**** H / CATARINA**** H / BARCELO LAS MARGARITAS **** H | ME | 978 | DOAN |

## KARIBEA — 9 egun / 7 gau

### PUNTA CANA

| Hotela | | 1 PER. | LAGUNA |
|---|---|---|---|
| IFA BAVARO VILLAGE**** H | GB | 1.198 | DOAN |
| NATURA PARK***** H / SIRENIS TROPICAL SUITES ***** H | GB | 1.358 | DOAN |

### MAIA ERRIBERA

| | | | |
|---|---|---|---|
| CLUB MAEVA**** H | GB | 1.498 | DOAN |
| SANDOS CARACOL BEACH***** H / OFERTA RIU ***** | GB | 1.718 | DOAN |

### CANCUN

| | | | |
|---|---|---|---|
| IMPERIAL LAGUNA*** H | OB | 1.138 | DOAN |
| IMPERIAL LAS PERLAS*** H / IMPERIAL DOS PLAYAS *** H | GB | 1.358 | DOAN |
| MAYA CARIBE**** H | GB | 1.498 | DOAN |

### LA HABANA

| | | | |
|---|---|---|---|
| G. C. NEPTUNO *** H | HG | 998 | DOAN |
| G. C. HABANA RIVIERA**** H / COMODORO **** H | HG | 1.098 | DOAN |
| BLAU ARENAL *** S H | GB | 1.398 | DOAN |

### VARADERO

| | | | |
|---|---|---|---|
| GRAN CARIBE KAWAMA **** H / G.C. VARADERO INTERNACIONAL**** H / RIU LAS MORLAS**** H | GB | 1.318 | DOAN |
| BARCELÓ SOLYMAR BEACH***** H / BARCELÓ MARINA PALACE***** H | GB | 1.538 | DOAN |

### LA HABANA/VARADERO

| | | | |
|---|---|---|---|
| G. C. NEPTUNO *** H/ G. C. CLUB KAWAMA **** H | HG/GB | 1.258 | DOAN |
| COMODORO **** H/ G. C. VARADERO INTERNAC. **** H | HG/GB | 1.298 | DOAN |

## AFRIKA IPARRALDEA

### TUNISIA 8 egun / 7 gau

| Hotela | | 1 PER. | LAGUNA |
|---|---|---|---|
| AZUR PLAZA **** H / NESRINE *** | ME | 508 | DOAN |
| RIU PARK EL KEBIR**** H | GB | 768 | DOAN |
| MELIA MOURADI HAMMAMET***** H / MELIA MOURADI PALACE***** H | ME | 608 | DOAN |

## Irteerak BILBOTIK

**Irteerak Bilbotik; Fuerteventurara eta Karibera Madrildik.** Itsas bidaiak ibilbidearen arabera. Prezioak bi pertsonarentzako logela bikoitzean aurretik aipatutako erregimenean. Azaroko eta abenduko irteera konkretuentzat bakarrik. Eskaintza hau ez de abenduaren 1etik 8rako irteerentzat (biak barne). Irgartzen diren prezioek %7ko deskontuo barne dute (*). Tasak, eskupekoak, bisa eto gestio datuak ez daude barne. Janari-erregimena: OB: Ostatua Bakarrik; HG: Hotela eta Gosaria; ME: Mantenu Erdia; MO: Mantenu Osoa; GB: Guztia Barne. Prezio zuzenak tipografiko akatsik egon ezean. **EZERLEKU MUGATUAK.**

450 bulego baino gehiago zure zerbitzura

## eta gainera... ITSAS BIDAIAK

2x1 LAGUNA DOAN

8 egun / 7 gau MANTENU OSOA

eta gainera... %7 RAINOKO DESKONTUA

### GRAND LATINO

Valentzia · Villefranche · Livorno · Civitavecchia · Napoli · Tunisia · Valentzia

· KANPOKO KABINA ·

1 Pertsona 780€ — Laguna DOAN

Irteerak urriaren 3an eta 10ean

### GRAND MISTRAL

Bartzelona · Livorno · Civitavecchia · Napoli · Tunisia · Malta · Bartzelona

· BARRUKO KABINA ·

1 Pertsona 762€ — Laguna DOAN

Irteera urriaren 3an

### GRAND VOYAGER

UDAZKENEKO IBILIBIDEA: Valentzia, Villefranche, Livorno, Civitavecchia, Napoli, Tunisia, Valentzia.

· BARRUKO KABINA ·

1 Pertsona 1.282€ — Laguna DOAN

Irteera azaroaren 21ean eta 28an

### BRASILERA ITSAS BIDAIA — GRAND MISTRAL

Bartzelona • Lisboa • Madeira • Tenerife • Recife • Salvador de Bahia • Rio de Janeiro

Tenerifera 6 egun: 371€ — Río de Janeirora 16 egun: 1.115€*

BARRUKO KABINA

Irteera azaroaren 14an

ZURE OPORRENGATIK EGIN DEZAKEGUN GUZTIA EGIN EGITEN DUGU



VIAJES IBERIA

BAL - 001 - M/M

# KMK'05

KILOMETROAK 2005eko aldizkaria • 3. zenbakia • 2005eko irailaren 30a

GOIENKARIAren gehigarria

# Iritsi da eguna!



Audi

SEAT

SKODA AUTO

Eskaintzarik onena

UDALAITZ

Gipuzkoa etorbidea 36 ARRASATE Tel.: 943 71 18 70 Faxa: 943 71 18 71


grupo amuebladora mondragonesa
TRUKE OPERAZIOA
Ekar ezazu koltxoi eta 100 € arte deskontatuko dizugu zure FLEX atseden sistema berrian
Banatzaile ofiziala:
FLEX
pardo
TEMPUR
COLCHONES Y ALMOHADAS QUE ALIVIAN LA PRESIÓN
SWISS confort
SWISSFLEX
www.swissflex.com
BULTEX
El Descanso Europeo.
Sealy
koltxoi leku
Zigarrola 1, 6. pabilioia Tel.: 943 77 14 92
www.grupo-aeme.com • grupoam@grupo-aeme.com


banak importa
TIENDAS
banak importa
BANAK IMPORTA ARRASATE
Orain, gehien inporta zaizkizun altzari eta osagarriak eskura ditzakezu
BANAK importa
BANAK IMPORTA ARRASATE - Zerkaosteta 3 - 20500 Arrasate
Tel.: 943 71 10 11

## ANDONI MUXIKA

KILOMETROAK 2005EKO KOORDINATZAILEA

# “Urte bizia izan da, bai emozio aldetik, bai lan aldetik”



M.A.

**Bost lagunek osatzen dute koordinatzaile taldea; tartean Andonik.**

**Kilometroak 2005 jaiaren bezperatan gaude, baina urtea luzea izan da eta lan handia egin dute lantaldeek eta koordinatzaileek. Andoni Muxika dago azken horien artean.**

**Urtea luzea izan da?**

Luzea baino gehiago, bizia esango nuke. Bizia bai emozio aldetik, bai lan aldetik. Gune ezberdinetako guraso eta herritarren artean egon den mestizaia nabarmenduko nuke, eta Arizmendi horren gaztea izanda inoiz bizi ez duen egoera bizi izan du. Biziki disfrutatu dugu; izan ere, Kilometroek aitzakia eman digute hainbat arlotako ekintzak antolatzeko.

> "Gurasoen eta herritarren artean mestizaia egon da”
>
> • • •
>
> "Sortutako dinamika ez dadila bukatu urriaren 2an”

**Zer izan da zailena?**

Informazio ona, zuzena eta erreala horrenbeste boluntario eta lantalderen artean jasotzea eta transmititzea.

**Urriaren 2ari begira ze espero duzu?**

Gurako genuke aurten sortutako dinamika honek urriaren 2an ez dezala izan bukaera. Ospakizun bat izango da; gurako genuke jai berezi bat izatea Euskal Herri osoarendako eta guretako, baina ez amaiera; urtean zehar mami handia egon da eta egunean bertan ere bai.

**Ibilbidea Aretxabaletatik pasatuko da. Eskaerarik egin gura diezu herritarrei?**

Pazientzia pixka bat. Milaka eta milaka pertsona hurreratuko dira herrira eta horrek beti sortzen ditu deserosotasunak. Era berean, Aretxabaleta eta Eskoriatzarekin beti gogoratuko dira Gipuzkoan. Eta jai-gunean egonda abantaila ere badaukate.

**Eta ibarretik datozenei zer eskatzen diezu?**

Bizikletendako aparkalekua egongo da, eta oinez etortzeko distantziak ez dira handiak. Autobusak uneoro ibiliko dira joan eta etorri euro baten truke.

**Nobedaderik egongo da?**

Ekitaldi nagusi bat egongo da, Urkuluko gunean, 12:30ean, eta bai Ikastolen Elkarteak, bai Arizmendik mezu edo testigantza bana irakurriko dituzte; abestiaren inguruan eszenifikazioa ere egingo dute.

**Bereziki zerbait landu gura izan duzue?**

Bai, ikastolaren hezkuntza proiektutik abiatuta Kilometroetara ezaugarri horiek ekarri eta praktikan jartzea zen ametsa, batez ere hiru zutaberen artean: parte-hartzea, autogestioa edo taldeen autonomia eta sormena.




Gure artean euskaraz!

ALZA

Sukaldeko tresneria • Lapiko lasterrak •Zartagin eta paella-ontzi

Aingeru ibiltokia 3 / Tel.: 943 71 41 31 / Eskoriatza 20540

# Ospakizun handiaren antolaketa

**Urte eta erdi ibili dira lanean koordinatzaile eta boluntarioak urriaren 2ko jaia gertatzen. Arizmendi ikastolaren zorra arinduko dute *Plazara!* jaiarekin.**

## 7 MILIOI EUROKO ZORRA

Kilometroak 2005 jaia 28. aldiz ospatuko dugu aurten Gipuzkoan, eta bigarren aldiz Leintz bailaran, 1981ean Arrasaten egin zelako. Urte asko pasatu dira ordutik, bizimodua asko aldatu da Euskal Herrian, eta aldaketak nabari dira Kilometroetan ere, baina ikastolen eta euskararen aldeko jaiaren espirituak berdintsu dirau.

Leintz bailaran egingo den Kilometroak jaian batutako dirua Arizmendi ikastolarendako izango da. Oso ikastola gaztea da, baina esperientzia handia duena, orain dela hiru urte sortu zuten bailarako hainbat ikastolak bat eginda. 12 gune ditu hiru herritan banatuta, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza, eta 3.005 ikasle. Bategiteak zor handiak eragin dizkio: mailegu bi eta 7 milioi euroko zorra. Kilometroak jaiarekin ez dute guztia estaliko, ez horixe, baina bai arnasa hartzen lagundu.

## BOLUNTARIOEN LANA EZINBESTEKOA

Dagoeneko urte eta erdi pasatu da *Plazara!* gertatzeko lehenengo lanekin hasi zirenetik, eta bost kiderekin osatutako koordinatzaile taldeak 700 boluntarioren laguntza izan du urte eta erdi horretan. 14 taldetan jardun dute boluntario horiek: ekonomia, arte eta sormena, kirolak, salmenta, zirkuitua, ingurumena eta garbitasuna, muntaia, komunikazioa, giza antolaketa, trafikoa, segurtasuna, osasuna, txosna eta protokoloa.

Orain arte egindako lana, baina, urriaren 2an borobildu behar da eta horretarako ezinbestekoak dira beste 1.000 boluntario inguru. 100.000 lagun espero dituzte eta horiei guztiei behar bezalako zerbitzua emateko oraindik gustura hartuko lituzkete antolatzaileek 300 bat laguntzaile: muntatze lanak egin, trafikoa zaindu eta osasunaz eta segurtasunaz arduratzeko batez ere.



M.A.

**700 boluntario ibili dira lanean urtean zehar, eta egunean bertan 1.700 inguru ibiliko dira.**

### 18 mila aparkaleku egokitu dituzte Arrasate eta Eskoriatzan

## AUTOBUS ZERBITZUA UNEORO

Aretxabaleta eta Eskoriatza artean egin duten ibilbideak 8.100 metro ditu eta zortzi gune. Aretxabaletara ez diete utziko sartzen automobilei; hala, Arrasaten eta Eskoriatzan egokitu dituzten aparkalekuetan utzi beharko dituzte. Arrasaten lau gune egongo dira aparkatzeko eta Eskoriatzan bat, guztira 18.000 autorendako lekua. Horiek betez gero Bergaran eta Zubillagan dauden aparkalekuetara bidaliko dituzte.

Autoa kanpoan utzi eta autobusa erabili beharko dute ibilbidera heltzeko. 80 autobus ibiliko dira uneoro Arrasate eta Eskoriatzatik Aretxabaletara. Joan-etorria euro bat ordaindu beharko dute erabiltzaileek, eta 14 urtetik beherakoek doan. Gainera, Pesa autobus enpresak indartu egin du ohiko zerbitzua eta ordu erdiro aterako dira autobusak bai Eibarretik, bai Zumarragatik. Aretxabaletan hiru geltoki egokituko dituzte: Bedarretako San Migel auzoan, Geltoki plazan, Azbe lantegi parean, eta Fagor Automation lantegian. Antolatutako autobusak Fagor Ederlanen geratuko dira.

PRENTSA MEKANIKOAK ETA ESTANPAZIO SISTEMAK
BANDA METALIKOA PROZESATZEKO SISTEMAK
PIEZA METALIKOAK PROZESATZEKO LERRO ETA EKIPOAK

eskolatik enpresara
paperetik altzairura
euskararen haria ez da etengo
EUSKARAZ BETOR ETORKIZUNA!

FAGOR
FAGOR ARRASATE Koop. E.

San Andres Auzoa, 20 - 20500 ARRASATE - www.fagorarrasate.com

# GRUPO ARKAUZ

1950 Zure etxea da 2005






**Kilometroekin euskararen alde**




ARKAUZ
ALTZARIAK
Araba etorbidea 20
Te./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

ETXE MOBEL
MUEBLES
ALTZARIAK
Araba etorbidea 5
Te./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



ARKAUZ
SUKALDE INTEGRALA
FAGOR
Mitarte 3
Te./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

ARKAUZ
ELEKTRAGAILUAK
expert
Andramari auzunea
Te./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

# Ekintza aukera zabala zortzi guneko ibilbide ikusgarrian




## ZORTZI KILOMETRO, ZORTZI GUNE ETA ZERBITZU UGARI

Zirkuituak zortzi gune ditu eta guztiek eskainiko dute aukera zabala. Gune guztietan daude jateko eta edateko salmenta postuak. 3. eta 6. guneetan paella jan ahal izango da.; 7. gunean herri bazkaria egingo dute eta 8. gunean, kirol etxean, sagardotegia ipiniko dute. 2. gunean, bestalde, Euskal Okelak txahala erreko du. Horrez gain, ogitarteko, edari eta kafe postuak gune guztietan izango dira aukeran. Horietan erabiltzeko txartelak beharko dira, ordea; horretarako bi diru-truke leku jarriko dituzte. Bestelako zerbitzuak ere, nahi beste:, komunak –baita ezinduendako egokituak ere– eta larrialdi zerbitzuak, esaterako. Oraindik Kilometroetako materiala erosi ez dutenek 3., 5. eta 7. guneetako dendetan izango dute horretarako aukera.

**Erraza bezain ikusgarria da Kilometroak 2005eko zirkuitua. Ibilbidean barrena zortzi gune izango dira aukeran; bakoitzean, kultura eskaintza, aterpeak, jatetxeak eta beste hainbat zerbitzu.**

### IBILBIDE ERRAZA: 8.100 METRO BI ORDUAN LASAI

Arrasaten, Eskoriatzan eta Aretxabaletan aztertutako bederatzi aukeren artean, beharrezko baldintzak betetzen dituen zirkuitua prestatu dute.

8.100 metro dituen ibilbideak Aretxabaleta eta Eskoriatza inguratzen ditu. Paraje zoragarria eta ibiltzeko erosoa. Aretxabaletatik abiatzen da, Basabeazpi ikastolatik, eta inguruko elizateetatik pasatuta, herrira jaisten da berriz.

Paisaia aldetik ikusgarria da. Anboto, Udalatx eta Kurtzebarri ikus daitezke alde batera begiratuta; beste aldean, berriz, Aloña ingurua, Urkuluko urtegia eta Arientza, Bolinaga eta Arkarazo auzoak daude.

Aldapa oso gutxi dauka ibilbideak, aterpe nahiko, eta trafikoak ez du inongo trabarik egingo, nahiz eta ia dena asfaltatuta egon. Antolatzaileen esanetan, "ordu eta erdi edo bi orduan lasai egin daiteke buelta".

### ZORTZI GUNE, HAMAIKA EKITALDI

Zirkuituan zortzi gune izango dira: Basabeazpi, Copreci, Bainuetxe, Urkulu, Arientza, Arkarazo, Almen eta Ibarra. Eta gune bakoitzean hainbat ekitaldi ezberdin.

Ekintzen artean bat nabarmentzekotan ekitaldi nagusia. Urkuluko gunean izango da, eta antolatzaileek ezustea izatea nahi duten arren, zerbait aurreratu digute: "60 ikasle, irakasle eta gurasok hartuko dute parte; eta kantu bidez adierazi nahi dugu zer den guretzat Kilometroak 2005".

Gainontzeko guneek ere izango dute berezitasunik. Lehenengoan, umeendako ekintzak izango dira nagusi, eta hirugarrenean ere ez da horrelakorik faltako. Bigarrenean, folk taldeek jardungo dute. Gazteen gunea izango da laugarrena eta zortzigarrenean ere eurendako musika nagusituko da. Bosgarrenak euskal folklorea erakutsiko du eta zazpigarrena familia giroko gunea da. Seigarrena, berriz, pasabidekoa.




SEIN
grupo • taldea
ETXEBERRIA
suministro industrial
Garmendipe, 1
20730 AZPEITIA - GIPUZKOA
TEL.: 943 157 115
FAX: 943 815 922
LAYSA, S.A.
Pol. Traña-Padura, pabellón 4
48220 ABADIANO - BIZKAIA
TEL.: 94 6217140
FAX: 94 6817545
MEMESA
Notario Etxagibel, 3
20500 ARRASATE - GIPUZKOA
TEL.: 943 712 425
FAX: 943 712 298
Euskal Herriko
erreferentzia nagusia
Industria Horniduran

**GARRAIOA**

Ibilbidera joateko antolatutako autobusak erabiltzeko eskatu dute Arizmendikoek. Geltokiak Aretxabaletan eta ibilbidearen hasieran ipiniko dituzte.

Autoa aukeratzen dutenendako aparkalekuak egongo dira: Arrasaten eta Eskoriatzan. Aparkalekuetatik ibilbidera 80 autobus ibiliko dira egun guztian. Aparkalekuetara bueltatzeko azken autobusa 20:30ean irtengo da zirkuitutik.

Pesak ere ohiko zerbitzua indartuko du. Ordu tarte batzuetan ordu laurdenean behin autobusak egongo dira . Ordutegi zehatza *www.pesa.es* helbidean dago.

Aretxabaletako jendeak ere kontuan hartu beharko ditu ohar. Norabide bakarreko hiru kale bi norabidetan jarriko dituzte: Errekabarren; Andramari eta Belorrieta. Kale horietan ezingo da aparkatu. Bizkaia kalea eta Araba ibilbidea, berriz, itxi egingo dituzte, eta bertatik ezingo da autorik ibili domekan, ezta bizilagunenak ere. Bestalde, udaltzainek eskatu diete lur azpiko aparkalekua edo garajea dutenei domekan autoa bertan utzi dezatela.

**Automobilen aparkalekuak Arrasaten eta Eskoriatzan ipiniko dituzte**

## KILOMETROETAKO GUNEAK: NON-ZER?

| ORDUA | 1. GUNEA BASABAEZPI | 2. GUNEA COPRECI | 3. GUNEA BAINUETXE | 4. GUNEA URKULU | 5. GUNEA ARIENTZA | 6. GUNEA ARKARAZO | 7. GUNEA ALMEN | 8. GUNEA IBARRA | ORDUA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 09:30 | Zirkuitua irekiko dute | | Jolasparkea (egun osoan) | Parapenteak (goizean zehar) | | Txondorra ikusteko aukera | | | 09:30 |
| 10:00 | Puzgarriak: txirrista, gaztelua... | | | | Ira meta dantzariak Alemania/Bretainia | Marrazki ohola (egun osoan) | Iparraldeko dantzariak | Eskoriatzako banda | 10:00 |
| 10:30 | | Arrostaitz-txikitxu dantza taldea | Aretxabaletako dantza taldea | Kanpai bueltak | | | | Lore Gazteak dantza taldea | 10:30 |
| 11:00 | | | | The Solanos | | | '1, 2, 3... Inaxito' (bertso antzerkia) | Arrasateko Banda (kalejira) | 11:00 |
| 11:30 | | Aretxabaletako akordeoi orkestra | Karaokea | | Aramaioko dantza taldea | | | | 11:30 |
| 12:00 | Tailerrak: musu-margotzea, eskulanak... | | | Arrasateko txalapartariak | | Paella erraldoia | | 'Ingurumena' (bertso antzerkia) | 12:00 |
| 12:30 | | | | Ekitaldi nagusia | Bertsolariak | | | | 12:30 |
| 13:00 | | Korrontzifolk taldea | Tutik Ere clown | | | Oihulari Klown (antzerkia) | Betizuak | | 13:00 |
| 13:30 | | | | Surfin Kaos | | | | Sorkun | 13:30 |
| 14:00 | | | Paella erraldoia | | Trikizio | | | | 14:00 |
| 14:30 | Puzgarriak | Afrika | | | | | | | 14:30 |
| 15:00 | | | Tutik Ere clown | Sharon Stoner | | | | Kaotiko | 15:00 |
| 15:30 | | | Umeendako herri kirolak | | Kardantxa 4.0 | | Bat Gehio | | 15:30 |
| 16:00 | Tailerrak | Gertrudis | | | | | | | 16:00 |
| 16:30 | | | | Anger | | | | Zorabiok | 16:30 |
| 17:00 | | | | | | | Urgabe | | 17:00 |
| 17:30 | | Larrain dantza | | Amaiera | Amaiera | Amaiera | | | 17:30 |
| 18:00 | Amaiera | Tapia eta Leturia | | | | | | Brigada Kriminal | 18:00 |
| 19:00 | | Amaiera | Amaiera | | | | Amaiera | Amaiera | 19:00 |




milaka
kilometro,
bide bera:
euskara.
Gipuzkoako Foru Aldundia
Gero eta hurbilago


Ez ote da
trena nahi dugula ?
Garaiz iritsi nahi baduzu.
Auto-ilarak gorrotatzen badituzu.
Garraio-bide merkeagoa nahi baduzu.
Segurtasun gehiago nahi baduzu.
Ingurugiroa errespetatzearen alde bazaude.
Agian trena nahiago izango duzu.
Horregatik, garraioa ikusteko era berri bat jarri dugu abian.
Etorkizuna jarri dugu abian. Igo zaitez.
EuskoTren
berriro, trena
www.euskotren.es

# Arizmendi ikastola: hamaika ikastetxe, 3.000 ikasle

**Arizmendi da Ikastolen Konfederazioko ikastolarik handiena; 2003ko irailaren 1ean sortutako kooperatiba. Hasi berri den ikasturtean 3.005 ikaslek jardungo dute ikastolaren hamaika ikastetxeetan.**



GOIENKARIA

Aretxabaletako Basabeazpi ikastetxean haur hezkuntzako neska mutikoak dihardute ikasten.

### AURTENGO IKASTURTEAN 3.005 IKASLE

Arizmendi ikastolarenak ez dira nolanahiko datuak. Aurreko ikasturtean 2.836 ikaslek jardun zuten bertan: 635 Haur Hezkuntzan; 956 Lehen Hezkuntzan; DBHn 764; Batxilergoan 295; Lanbide Heziketan 135 ikasle eta Lanbide Hastapenean, 51. Hasi berri duten ikasturterako, 3.005 ikaslek eman dute izena Arizmendin. Haiekin lanean jardungo duten irakasleak, berriz, guztira 300etik gora dira.

Leintz bailaran barrena, Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan, Arizmendik dituen hamaika ikastetxeetan daude banatuta ikasle horiek guztiak.

Eskoriatzan bi ikastetxe ditu: Almen eta Jose Arana; Aretxabaletan, Basabeazpi ikastetxea eta zerbitzu orokorren bulegoak daude. Arrasaten dituzte ikastetxe gehien, zortzi, hain zuzen ere: Umezaintza, Zaldibar, Santa Teresa, Ferixalekua, Olarte, San Viator, Gazteluondo eta San Viator Txiki.

**Leintz bailaran hamaika ikastetxe ditu Arizmendi ikastolak**

### ESKAINTZA ZABALA

Ikastetxe horietako eskaintza ere oso zabala da, honako ikasketak egin daitezke: Haur Hezkuntza hiru herrietan (sei ikastetxetan); Lehen Hezkuntzako ikasketak, berriz, lau ikastetxetan eskaintzen dituzte, Arrasateko hirutan eta Eskoriatzan, Almenen. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak Arrasaten, bi ikastetxetan, eta Eskoriatzan, Almenen, eskaintzen dituzte. Batxilergoa ikasteko aukera dago Almenen, Lanbide Heziketa San Viatorren, Arrasaten, eta Lanbide Hastapena Zaldibarren, Arrasaten hori ere.

### KONFEDERAZIOKO IKASTOLARIK HANDIENA

Ikastolen Konfederazioko handiena da Arizmendi ikastola, 3.005 ikaslerekin.

Leintz bailaran ere garrantzi handiko ikastola da Arizmendi. Arrasaten, esaterako, herriko ikasle guztien %70ek gutxi gorabehera Arizmendiko ikastetxeetan dihardute; Eskoriatzan, berriz, %60 inguru ibiliko da; Aretxabaletan du presentzia txikiena.

### ZAZPI MILIOI EUROKO ZORRAK

Handia da Arizmendi, eta handitasun horrek eta horrenbeste ikastetxe izateak beharrak ere areagotzen ditu. Une honetan Arizmendik zazpi milioi euroko zorrak ditu. Lau edo bost mailegu-ri erantzun beharko diete 2018. urtera arteko epean. Eraikinetan egindako berrikuntzek eta inbertsioek eragin dute, besteak beste, ikastolaren zorra neurri horretan handitzea.




UNITED COLORS OF BENETTON.

Maalako Errabala, 13
ARRASATE
943 79 50 78

# Urte osoan barrena, ekitaldi piloa Kilometroen alde

**Oraingo domekan, urriaren 2an, ospatuko da Leintz bailaran Kilometroak, hainbat ekitaldi antolatuta. Gogoratuko ditugu batzuk?**

### TXUPINAZO FESTA

Txupinazo festa iazko azaroaren 12an egin zuten Eskoriatzako kiroldegian. Arizmendi ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoak modelo lanetan ikusi genituen Kilometroen aurkezpen ekitaldian. Gainera, ez ziren bakarrik aritu, lagun izan zituzten-eta Euskal Herriko hainbat aurpegi ezagun.

Goienak antolatutako Danbaka musika lehiaketaren ostean, *Danbaka bira* antolatu zen Kilometroen alde. Ekitaldietako bat Elgetako Espaloia Kafe Antzokian egin da, aurtengo otsailaren 11n. Azkaiter Pelox, Lukas Prest eta Dolce Vita aritu ziren.

### 'DOKTOR DO RE MI'

Kilometroak direla-eta antolatu den ekitaldirik arrakastatsuenetakoa Oskorriren azken muntaiaren estreinaldia izan zen. Arrasateko Uarkapen estreinatu zen, apirilaren 24an, *Doktor Do Re Mi eta Benedizebra* ikuskizuna. Sarrerak agortu egin ziren; 1.500 lagun batu ziren.

**Antzerkia, musika emanaldiak, kirola... Denetik egon da**

**1.500 lagun batu ziren Oskorriren 'Doktor Do Re Mi' ikusteko**


GOIENKARIA
Realak eta Eibarrek Atxabalpen jokatu zuten lagunarteko partidua Kilometroen alde.

Bestalde, Arizmendi ikastolak inoiz baino handiagoa egin du aurten Ikastolaren Eguna. Lau bat kilometroko zirkuitua ahalbidetu zuten Arrasateko hirigunean, maiatzaren 7an. Argitxo iratxoa ere bertan izan zen.

### KILOMETROETAKO KANTUA

*Oia* kantua zuzenean entzuteko lehen aukera izan zen Arrasateko Amaia aretoan maiatzaren 3an. 60 ikasle, irakasle, langile eta gurasok kantatu zuten Jon Sarasuaren hitzekin egin duten abestia, Liken taldearen laguntzarekin. Amaia aretoan 700 lagun bildu ziren.

Maiatzaren 17an, bestalde, Fernando Morillok hasi eta Roberto Izagirrek bukatu duen *Dragoiaren Orroa* Kilometroetako liburua aurkeztu zuten.


GOIENKARIA
Arizmendiko neska-mutikoekin batera, aurpegi ezagunak batu ziren moda desfilerako.

Kirolak ere izan du tartea Kilometroen aldeko ekitaldietan: nazioarte mailako errugbi hirukoa, Realaren eta Eibarren arteko partidua, Bidasoa eta Tekaren arteko eskubaloi norgehiagoka, mendiko krosa, plater-tiroketa…

JUBAR®
ATEAK, S.L.
Kataide industrialdea 18 • Tel.: 943 79 10 20 • Faxa: 943 79 08 17
110 posta-kutxa • ARRASATE • jubarateak@ euskalnet.net
DQ certificación
E.R. 02/518
ISO 9001/00
ACREDITADO POR ENAC

• Garajeko ateak
• Segurtasunezko pertsianak
• Automatismoak
• Konponketak
• Urrutiko aginte tresna homologatuak
• Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak









Direnak eta ez direnak zertzeko
Esanak esan Euskara
aurrera doan herria
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

# Moda-modako jantziak, Kilometroetarako egokiak

**Kolore, tamaina eta mota askotariko arropa, festa bakarrerako. Kamisetek dute arrakasta, baina jertse zein prakarik ere ez da faltako, egoki jantzi nahi dutenendako.**










MAITENA ARANA

**Beste Bat arropa etxetik ekarri dituzte Kilometroetarako jantziak eta osagarriak; zirkuituan, bost gunetan egongo dira salgai.**

### HIRU DENDA ETA SALMENTA POSTUAK 280 TOKITAN

Kilometroetarako moda-modako jantziak izan dira salgai Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan ipinitako hiru salmenta puntutan. Bertan ez ezik, Euskal Herriko beste hainbat txokotan ere saldu dute materiala. Gipuzkoako jai eta erromerien egutegia hartuta, guztira 280 tokitan izan dira Kilometroetako arropa saltzen Arizmendikoak.

### ARRAKASTATSUENAK KAMISETAK

Beso luzeko eta motzeko nikiak, jertseak, prakak, gonak, galtzerdiak, berokiak, bufandak, txanoak, ilerako zintak, poltsak... Kolore eta tamaina guztietako arropak dira egokiak Kilometroetarako. Hala ere, antolatzaileek esan digutenez, "beti kamisetak dira produktu salduenak. Jendeak kirol-jertseak eta gerriko-poltsak ere erosten ditu".

Ez dute salmenten gaineko datu zehatzik oraindik, baina euren esanetan, "salmentak oso potoloak izango dira. Diru sarrera handiena arropetatik dator".

### ESKAINTZA BEREZIAK

Oraindik Kilometroetako arroparik eskuratu ez dutenek gaur bertan dute horretarako aukera. Bost postu jarriko dituzte neguko zein udako arropekin Copreci, Bainuetxe, Mitarte Garai, Almen eta Basabeazpi guneetan. Hainbat produktutan "bi baten truke" eskaintza egongo da.


Ibarreta z/g • 20577 ANTZUOLA
Tel.: + 34 943 78 60 09
Faxa: + 34 943 78 70 34
http://www.matz-erreka.com

MATZ-ERREKA

- Berotan estanpaturiko torlojugintza berezia
- Plastiko eraldakuntza injekzio bidez
- Ate eta pertsianak zabaltzeko automatismoak
- Oinezkoentzako ate automatikoak

ERREKA Automatismoak Ate automatikoak




INDUSTRIAS ZANGUITU

Torlojugintza
Espezialitatea: era guztietako azkoinak

Tel.: 943 76 18 05 / Faxa: 943 76 27 43 / 20570 Osintxu-Bergara / industriaszanguitu@stl.logiccontrol.es




Gu ere, Kilometroak jaiarekin!

EzkerBatua
Berdeak


PLAZARA!
kmk05
Leintz bailara
ARIZMENDI
KILOMETROETAN, BIDELAGUN
Kilometroak 05ean joan-etorria eroso, seguru eta azkar egin dezazun, zure zerbitzura izango gaituzu A-8 eta AP-1 autobideetan.
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
BIDEGI

# Goienka2a

Egubakoitza / 2005eko irailaren 30a

Kultura eta aisialdia

Irailaren 30etik urriaren 7ra




# Book-crossing

Liburuak trukatzea ez da kontu berria. Berria dena da hori modu antolatuan egitea, nazioarteko doako kluba osatuta. Hori da bookcrossing izeneko fenomenoa; azal honetan agertzen da euren logotipoa. Klub horren funtsa da liburuak irakurtzea, erregistratzea eta beste batzuek jaso ditzaten askatzea. Eta orain, liburuak askatzeko leku ofizial bat dugu ibarrean, Elgetan, hain zuzen. /**15**

AZALA: IÑAKI ITURBE


Bizi naturan, Eskoriatzan
Elorreta
Bizitegi-Gunea
Conjunto Residencial
sukibide
Promotore eta eraikitzaile
sukia
Informazioa eta salmenta
ANBOTO (943 79 20 48)


PLAZARA!
Leintz bailara
kmk05
ARIZMENDI
Goitb
Goiena Telebista
Domekan
22:30ean ordubete baino gehiagoko saioa:
• Eguneko giroa.
• Elkarrizketak.
• Balorazioak.
Astelehenean:
Ordu erdiko saioak (12:45,17:00 eta 17:45) eta saio osoaren errepikapena 21:15ean.
ASTELEHENEKO
Goienkaria
Astelehenean
Kronika osatuena:
• Argazkiak.
• Ikarrizketak.
• Datuak.
• Balorazioak.
• Eguneko gorabeherak.
Ez dizu EZERK ihes egingo!

**IRAKURZALETASUNA/ 'BOOKCROSSING'-A DEBAGOIENERA IRITSI DA**

# Liburu-truke leku ofiziala ibarrean

ELGETAKO ESPALOIA ANTZOKIAN DAGO IBARREKO LEHEN 'BOOKCROSSING' LEKU OFIZIALA, GIPUZKOAKO BIGARRENA

LEIRE KORTABARRIA

**B*ookcrossing*-a iritsi da Debagoienera, ibarrak baduelako orain *bookcrossing* gune ofizial bat, Elgetako Espaloia antzokian. Gurean berria, baina mundu osoan, gero eta zale gehiago dituen jarduera da. Liburuak irakurtzeko eta kudeatzeko estilo iraultzailea da.**

Guztiz instituzionalizatutako liburu-trukaketa da *bookcrossing*-a. Mundu osoko liburu kluba da, denbora eta espazioa gainditzen dituena. Proiektua 2001eko martxoan sortu zen, eta apirilean egin zuten *www.bookcrossing.com*, webgune ofiziala. Webgunean oinarritzen da dinamika gehiena. Estatuan, ispilu-webgunea da *www.bookcrossing-spain.com*.

Funtsean, liburua irakurri ondoren nonbaiten *ahaztea* da, beste norbaitek jaso eta gauza bera egin dezan. Baina askoz gehiago dago, *Hiru Erreak* printzipioan laburtuta: irakurri (*read*), *www.bookcrossing.com*-en erregistratu (*register*) eta askatu (*release*).

Liburuak jasotzeko edo askatzeko leku ofizialak daude, eta hori da Espaloia antzokiak ematen duen aukera. Gipuzkoan, orain arte, bakarrik Donostian zeuden gune ofizialak.

Leku ofizialaren helburua da, batik bat, liburu berrien abiapuntu izatea, lehendik sarean zeudenak uzteko leku baino. Elgetan hartu arren, munduko beste edozein lekutan aska daiteke, eta, hain zuzen, horixe da *bookcrossing*-aren berezitasuna.

**INTERNETEN PAPERA**

Erraza, parte-hartzailea eta doanekoa da *bookcrosser* izatea. Internetek garrantzi handia du.

Liburu bakoitzak bere identifikazio zenbakia (BCID) du, barruko etiketa baten agertzen dena. Liburu bat lehenengo aldiz askatu gura duenak webgunean zenbaki hori lortu behar du, eta etiketa ipini. Horrez gain, gomendatzen da webgune horretan askapen oharra egitea, liburua jasotzeko dagoela esaten. Erregistratu duenak liburuaren ibilbidea jarraituko du, e-postaz jasoko duelako ohar bat liburua eskuz aldatzen den bakoitzean.

Liburu bat jasotzen duenak ere badu bere zeregina: liburu bakoitzak bere egunkaria du, eta hor idatz daiteke horren gaineko iritzia, komentarioak… Hau ez da derrigorrezkoa, baina egitea gomendatzen da.

*Bookcrosser*-ek bila dezakete webgunean gura duten izenburua libre dagoen, eta non. Horri *liburu ehiza* deitzen diote.

Azkenik, *bookcrossing*-ak liburu salmentak areagotu ditu. Izan ere, webgunean, iritziak, klasifikazioak, gomendioak… agertzen dira, eta horrek liburu salmentak handitu egin ditu, irakurzaleendako erreferentzia bihurtuz. Are gehiago: argitaletxe askok aleak ematen dituzte urtero *bookcrossing*-erako.




IBAN ARANTZABAL

**Dagoeneko badago aukera Espaloian liburuak utzi edo hartzeko.**

## Jarduera, zifratan

**400.000 KIDE**
**Irailaren 19an erregistratu zen 400.000. kidea, Bartzelonako liburuzale bat. Bazkide gehienak 25-45 urte bitarteko emakumeak dira.**

**HAZKUNDEA, %6**
**Estatuan 2001. urteaz geroztik %6 hazi da *bookcrossing*-a. Hazkunde handieneko 4. estatua da.**

**HIRU LEKU**
**Hiru liburu-truke leku ofizial dago Hego Euskal Herrian: bat Bilbon, bat Donostian eta, orain, Elgetan.**

**1.370.000 LIBURU**
**Horiexek ziren mundu osoan iazko irailean erregistratuta zeuden liburuak.**

**287.000 ERREGISTRO**
***bookcrosser* inguruk erregistratu dute libururen bat.**

**IBAN RETOLATZA** / ESPALOIA ANTZOKIKO KULTURA TALDEKO KIDEA

## *"Txoko bat prestatu dugu euskarazko 30 bat liburuarekin"*

**Espaloia antzokian *bookcrossing*-a bultzatzen dihardu Iban Retolazak.**

**Zergatik da interesgarria *bookcrossing*-a bultzatzea Elgetan eta inguruan?**

Ez da hemengo kontua bakarrik, mundu osoko mugimendua baizik. Liburua Espaloian jaso arren, Donostian, Bilbon edo beste edozein ertzetan aska daiteke. Benetan interesgarria jokatzeko era da: liburuak apalean utzi ordez, askatu egiten dira, eta norberak beste liburuak eskuratzeko aukera du.

**Zer esan nahi du bookcrossing gune ofizial izateak?**

Espaloian liburuak jasotzeko edo askatzeko aukera izango dugula.

**Noiz hasiko da jarduera hori Espaloian?**

Dagoeneko hasi da. Joan den astean prestatu genuen txoko bat, 30 bat liburuarekin. Espero dugu honen berri zabaltzen joatea, jendearen, gure webgunearen eta beste hainbat medioren bitartez.



GOIENKARIA

**Zelako liburuak dituzue?**

Oraingoz, euskarazkoak bakarrik, gai askotakoak: poesia, narratiba, bertsolaritza… Ez diogu mugarik jartzen jendeak ekar lezakeenari.

**Interesik sumatu duzu?**

Esperientzia berria da hemen eta ez dakigu zein erantzun izango duen. Hala, jendea parte hartzera animatzen dugu.

Parte-hartzean eta talde-lanean oinarritutako metodologia
• Euskara-planak enpresa eta erakundeetan
• Esparruka landutako euskara-planak udalerrietan: lan-mundua, aisialdia, merkataritza...
• Gogoetak, plan estrategikoak eta erakundeen antolamendua hobetzeko prozesuak
ELHUYAR aholkularitza
www.elhuyaraholkularitza.net
aholkularitza@elhuyar.com
Tel. 943 372052 (Usurbil) 94 4668816 (Durango)

Mobiliario Arenaza
- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

MONDRAGON UNIBERTSITATEA | GOI ESKOLA POLITEKNIKOA | ESCUELA POLITÉCNICA SUPERIOR
Logistika integralean aditu ikastaroa
norentzat
• Proiektu logistikoak arrakastaz burutu nahi duten profesionalentzat.
egutegia
• Datak: 2005eko urriaren 14tik 2006ko maiatzaren 26ra.
• Egunak: ostiraletan, arratsaldez, eta larunbatetan, goizez.
lekua eta informazioa
Arabako Merkataritza-Ganbera
945 15 01 90
informazio gehiago
www.eps.mondragon.edu/celog
www.eps.mondragon.edu/postgrados

# Ira. 30–Urr. 7

**Leire Kortabarria /** Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 25 05 01** • Faxa: **943 25 05 13**

## MATRIKULAK

### BERGARA

► **UNED unibertsitatean** ikastaro berrirako matrikulazioa egiteko aukera dago urrian. Argibideetarako, jo Bergarako euren egoitzara, herriko plazan, edo *www.uned.es/ca-bergara* webgunera. Telefono zenbakia honako hause da: 943 76 90 33.

## DEIAK

### ARRASATE

► **Literatura Solasaldiak** izango dira Monterronen urriaren 25etik hasita, 18:30-20:30 ordutegian. Hiruna saio izango dira euskaraz eta espainolez. Izenematea Monterronen egin behar da (943 77 01 05 / 943 77 07 68) urriaren 15era bitartean.

### BERGARA

► **Txapa Irratiak** programazioa antolatzeko eta aurtengo asmoetaz hitz egiteko batzarra deitu du bihar, zapatua, gaztetxean, 12:00etan. Saioren bat egin nahi duenari dei egiten diote hara joateko.

► **Mikologiaren gaineko jardunaldiak** izango dira urriaren 6tik 8ra, Jardun euskara elkarteak antolatuta. Hilaren 6an, eguena, perretxikoen gaineko hitzaldia egingo dute Luis Ezenarro eta Jose Mari Larrañagak kultura etxean, 19:00etan. Urriaren 8an, irteera egingo dute, eta horretarako izena eman behar da Jardunen (943 76 36 61).

### DEBAGOIENA

► **Ilatargi Astronomia Taldeak** dei egiten du urriaren 3an izango den eguzki eklipse partzial ikusgarriari begiratzeko. Bi modu erabil daitezke: bata, betaurreko bereziak erostea optika baten; bestea, prismatiko batzuekin eguzkia pantaila baten proiektatzea. Informazio gehiagorako, idatzi *ilatargi@hotmail.com* helbidera.

### ELGETA

► ***Itzultzaileak, idazlea lagun*** delako jardunaldia antolatu du EIZIE elkarteak urriaren 3tik 6ra bitartean Espaloia antzokian. Jokin Muñozen *Hausturak* ipuina alemanera, italierara, katalanera eta polonierara itzultzeko lantegian ariko dira lau itzultzaile.

### DEBAGOIENA

► **Agifes elkartea** (gaixo psikikoen eta familien elkartea) boluntario bila dabil. Harremanetarako, deitu 943 76 98 56 telefonora edo idatzi *bergara@agifes.org* helbide elektronikora.

### ESKORIATZA

► **Guraso Eskolako** lehen jardunaldia egingo dute eguenean, urriak 6, kultura etxean, 18:00etan: *Nerabea ulertzen*. DBHkoen aita-amendako da, baldin eta aldez aurretik izena eman badute.

► ***Euskal Herriko historiaurrea: Lezetxiki*** delako hitzaldia egingo du Alvaro Arrizabalaga adituak eguenean, hilak 6, Ibarraundi museoan, 19:00etan, *Gure aztarnen bila* zikloa bukatzeko.

## IKASTAROAK

### ANTZUOLA

► ***Zure egunkaria irakurri*** delako Interneteko ikastaroa emango dute eguenean, hilak 6, KZGunean, 17:00-18:00.

### ARETXABALETA

► **Aredhana Yoga eta Psikoterapia Zentroak** yoga ikastaroa ematen du martitzen eta eguenetan, 10:00, 17:00 edo 20:00etan, eta garapen pertsonal ikastaroa hilean behin, zapatu goizez. Izena emateko, deitu 616 96 57 95 telefono zenbakira.

► **Taila ikastaroa** antolatu du Okila taldeak urriaren 3an hasita, 18:00-20:00 ordutegian. Izena emateko, jo kultura etxera, udaletxera edo Okilaren tailerrera (Murubide kalea, 5).

► **Contact dantza ikastaroan izena emateko** epea urriaren 14ra luzatu du Gozatu ekimenak. Ikastaroa urriaren 19tik Gabonak arte izango da, Kurtzebarri eskolan, 20:00-21:30. Gorputz pedagogia, dantza eta akrobazia barneratzen dituen gorputz teknika berri bat da. Praktika zeharo heterogeneoa da, edozein teknika maila, adin eta sexuko pertsonek parte har dezaketelako eta bide artistiko, ludiko eta terapeutikoa lantzen dituelako. Langabeek eta ikasleek 21 euro ordaindu beharko dute; langileek, 24. Izena emateko, joan Azkena tabernara edo Arrasateko Aker tatuaje dendara. Argibideetarako, deitu 943 77 12 00 telefonora (Maier).

► **Honako Internet ikastaroak** izango dira KZGunean: oinarrizko ikastaroa (urriak 3-14), *Etxetik eros ezazu* (urriak 4, 11:00-12:00) eta *KZGuneko Foroak eta FAQ* (urriak 6, 11:00-13:00).

### ARRASATE

► **Sanatana Dharma Yoga Eskolak** yoga ikastaroak emango ditu urriaren 10ean hasita, astelehen eta eguaztenetan, 09:00-10:30 (Maite, 635 71 06 16) eta martitzen eta egienetan, 18:30-20:00 eta 20:15-21:45 (Ana, 943 78 31 26). Deitu 21:00etatik aurrera.

► **Ekin Emakumeak elkarteak** ikastaro batzuk antolatu ditu: norbere burua defenditzekoa (urriak 15-abenduak 3, zapaturo, 11:00-13:30) eta hip-hop/funky dantzarena (urriak 3-abenduak 14, astelehen eta eguaztenero, 19:00-20:15). Izenematea zabalik dago.

### ESKORIATZA

► ***Enplegu bat lortu*** delako Internet ikastaroa emango dute gaur, egubakoitza, KZGunean, 11:00-12:00 ordutegian.

► **Gazteendako hennazko tatuaje ikastaroa** antolatu du Udalak urriaren 9an. Izenematea eta argibideak, Udal Gazteria Zerbitzuan, martitzen eta eguenetan, 09:30-17:30 ordutegian, edo *gazteria@eskoriatza.net* helbidean.

► **Euskarazko jolasen ikastaroak** antolatu ditu Udalak. Batetik, 0-4 urte bitartekoen jolas eta abestiak irakatsiko dizkiete hezitzaileei. Bestetik, 5-10 urte bitartekoendako eta gurasoendako ikastaroa ere badago. Izenematea kultura etxean egin behar da urriaren 7ra bitartean. Argibide gehiagorako, deitu 943 71 46 88 telefono zenbakira.

Kilometroak 05 antolatzeko, **BOLUNTARIOAK** behar dira

Hemen, zure laguntza emateko telefono eta e-posta:

**943 71 24 12**

*kilometroak05@arizmendi.ikastola.net*

**Urriaren 2an denok Aretxabaletara, plazara!**



► JAIAK

### HERRI EGUNA, OÑATIKO JAIETAKO OSPAKIZUN ESANGURATSUA

Herri Egunak parte-hartze handia du beti Oñatiko jaietan. Bihar, zapatua, euskal jantzia ipini eta horretaz gozatzeko eguna izango da. 10:30ean, Unibertsitate inguruan, ganadu, fruta, barazki, lore eta artisautza erakusketa zabalduko dute; 12:00etan, sagardoa banatuko dute herriko plazan; 13:15ean, lehiaketako sariak banatuko dituzte, eta 14:30ean, herri bazkaria izango da Zubikoan. Horrez gain, goiz osoan Euskal Taberna egongo da zabalik. Arratsaldean, euskal musika, herri kirolak, presoen aldeko ekitaldia, Salbea eta, gauean, Triki Ta Ke taldearen kontzertua eta euskal DJ jaialdia izango dira. Etzi, domeka, Errosario eguna ospatuko dute Oñatin, eta astelehenean, Biharamuna, koadrilen mozorro erakustaldiarekin.

**Non:** Oñatin, Unibertsitate inguruan, herriko plazan eta kiroldegian. **Noiz:**bihar, zapatua. **Ordua:** 10:30ean, azoka.

## OSPAKIZUNAK

### ANTZUOLA

► **1961eko iraila eta 1962ko urria** bitartean jaiotakoek batera afalduko dute urriaren 15ean. Izena emateko, jo Dina Mujika edo Jabi Fernandezengana.

### ESKORIATZA

► **Euskararen aldeko jaia** antolatu dute herriko taldeek bihar, zapatua, *Ifini dantzan miñe, euskara plazara!* leloarekin. 17:00etan, garagardo festa izango da herriko plazan, musika, bertso eta trikitixarekin; iluntzean, afari-merienda; eta 22:00etan, kontzertua gaztetxean.

## MUSIKA

### ARRASATE

► **Red Alert, Enboskada eta Suspenders** taldeek kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 23:00etan. Haitz aka Simila (meataka!) disko jartzailearen emanaldia izango da gero, 03:00etan.

► **Sotrondioko (Asturias) abesbatzak eta Goikobaluk** emanaldia egingo dute bihar, zapatua, San Frantzisko elizan, 19:45ean.

### BERGARA

► **Glenn Hughes-ek** disko berria, *Soulfully*, aurkeztuko du gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan. Deep Purple taldeko partaide izan zenak Chad Smith Band taldearen babesa izango du. Sarrera da 24 euro.

### OÑATI

► **Jaietako txosna gunean** honako kontzertuak izango dira: Sex Museum, Jukebox eta De Ramones (gaur, egubakoitza, 22:30), Sorkun (etzi, domeka, 23:00) eta Oñatiko musikariak abesti ezagunen bertsioak jotzen (urriak 3, astelehena, 17:00).

## ERAKUSKETAK

### ARRASATE

► **Kilometroak 2005en aldeko** margo erakusketa eta salmenta inauguratuko dute gaur, egubakoitza, Harresi aretoan, 12:30ean. Hogei bat margolari gipuzkoarren lanak daude. Urri osoan izango da zabalik.

# Zinema

### ARRASATE

■ AMAIA ANTZOKIA

***Semen, una historia de amor***
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

***No sos vos, soy yo***
Eguena: 20:30.

### ELGETA

■ ESPALOIA

***Smoke***
Eguaztena: 21:30.

### EIBAR

■ UNZAGA

***Aupa Etxebeste!***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

■ RIALTO

***El secreto de los hermanos Grimm***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

### GASTEIZ

■ GURIDI

***Torrente 3***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 16:30, 18:30, 22:30.
Domeka: 16:30, 18:30, 20:30.

***Mi mujer se llama Mauricio***
18:00, 20:15, 22:30.

***Un día inesperado***
17:30, 20:00, 22:30.

***La madre del novio***
18:00, 22:30.

***Aupa Etxebeste! (euskaraz)***
18:00, 20:15, 22:30.

***Amor en juego***
Egubakoitza: 18:00, 20:15.
Zapatua: 20:15.
Domeka: 22:30.

***El mercader de Venecia***
17:30, 20:00, 22:30.

***Y que le gusten los perros***
20:15.

■ FLORIDA-GURIDI

***Princesas***
17:30, 20:00, 22:30.

***Lila dice***
17:30, 20:00, 22:30.

***Paradise now***
18:00, 20:15, 22:30.

***Obaba***
18:00, 20:15, 22:30.

***El secreto de los hermanos Grimm***
17:30, 22:30.

***Por qué las mujeres siempre queremos más***
18:00, 20:15, 22:30.

***Cinderella man***
19:45.

***El método***
17:30, 20:00, 22:30.

■ ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

***Stealth, la amenaza invisible***
16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

***Ninette***
22:15, 00:40.

***El sonido del trueno***
16:00, 18:05, 20:10.

***Amor en juego***
16:00, 18:05, 20:15, 22:30, 00:45.

***Guardianes de la noche***
20:00, 22:20, 00:40.

***El secreto de los hermanos Grimm***
16:30, 19:15, 22:00, 00:30.

***Sr. y Sra. Smith***
22:00, 00:30.

***Doraemon***
16:00, 18:05.

***Sharkboy y Lavagirl***
16:00, 18:00.

***La isla***
16:00, 19:00.

***Torrente 3***
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

***La madre del novio***
16:00, 18:05, 20:15, 22:30, 00:45.

***La noche del hermano***
20:00, 22:15, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ YELMO CINEPLEX-GORBEIA

***Guardianes de la noche***
Egubakoitza: 15:30, 17:35, 19:40.
Zapatua: 15:30, 17:35.
Domeka: 12:15, 15:30.

***Embrujada***
12:15, 16:25.

***Cinderella man***
18:45, 21:45, 00:30.

***Princesas***
12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

***Amor en juego***
12:15, 15:35, 17:35.

***Sr. y Sra. Smith***
22:25, 00:45.

***Charlie y la fábrica de chocolate***
12:15, 15:35, 17:50, 20:05.

***Vuelo nocturno***
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

***Torrente 3***
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

***El método***
12:15, 15:40, 17:55, 20:10, 22:25, 00:40.

***Un día inesperado***
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

***Stealth, la amenaza invisible***
19:35, 22:05, 00:35.

***Doraemon y los dioses del viento***
12:15, 16:45.

***El secreto de los hermanos Grimm***
12:15, 15:40, 18:00, 20:20, 22:40, 00:55.

***Aupa Etxebeste!***
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

***Trauma***
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

***La madre del novio***
12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

***Cuatro hermanos***
18:30, 20:35, 22:45, 00:55.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Egerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

■ ÁBACO BOULEVARD

***Embrujada***
12:10, 16:05, 18:20.

***Amor en juego***
20:05, 22:25, 00:45.

***El mercader de Venecia***
12:00, 17:00, 19:40, 22:20, 01:00.

***La madre del novio***
12:00, 16:05, 18:10, 20:20, 22:30, 01:00.

***Y que le gusten los perros***
12:10, 16:00, 18:00.

***Vuelo nocturno***
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:45.

***Stealth, la amenaza invisible***
12:10, 16:30.

***Cinderella man***
19:05, 22:00, 01:00.

***Obaba***
12:15, 17:10, 19:45, 22:05, 00:45.

***El secreto de los hermanos Grimm***
12:10, 17:05, 19:45, 22:15, 00:45.

***Charlie y la fábrica de chocolate***
12:10, 18:00.

***Ausentes***
20:30, 22:30, 00:45.

***Cuatro hermanos***
20:00, 22:20, 00:45.

***Sr. y Sra. Smith***
12:00, 17:20.

***Torrente 3***
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

***Un día inesperado***
12:00, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Egerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

***Charlie y la fábrica de chocolate:*** ●●●● | ***Princesas:*** ●●

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

## KRITIKA

### AUPA ETXEBESTE!

PUNTUAZIOA: ●●●

**ZUZENDARIA:** Asier Altuna eta Telmo Esnal.
**AKTOREAK:** Ramon Agirre, Elena Irureta, Iban Garate.

Urte askotako parentesiaren ondoren, estreinatu da gure pantailetan euskaraz eginiko filma, eta horrek jasotako harrera, bai Donostiako Zinemaldian, bai Zinema gela komertzialetan, oso ona izan da. *Aupa Etxebeste!* ñabardura beltzak dituen komedia arina da. Protagonista ekonomikoki gutxira etorritako familia dugu. Familiak, herrian lortutako estatusa mantendu nahian, oporretara irten den planta egiten du, gero ezkutuan etxean geratzeko.

*Aupa Etxebeste!*-k ez du hain modan dagoen umore zakarra erabiltzen, neurtuago den umorea erabiltzen ahalegintzen da. Eta neurritasun hori filmaren tonuan ere agertzen da: ez du oso garratza izan nahi, etxe baten gordeta dauden lau pertsonaiek aukera ona ematen dute horien frustrazio eta gorrotoetan zirikatzeko, baina nahiz eta senideen artean dauden diferentzia batzuk eta gure eguneroko miseri batzuk azaldu, zuzendariek nahiago dute begirada arina erabili, pertsonaien izaeretan sakonean sartu gabe. Eta aukera hori hartu dutenez, esan behar da badakitela istorioari etekina ateratzen. Badira istorioan biraketa eta ezusteak, eta



horrela, nahiz eszenaren bat soberan egon (senar-emazteak emaztearen bideo bat ikusten ari diren unea), edo lapurren eszena guztiz borobildu barik egon, filma kontatzeko era egokia eta txukuna lortzen baita.

*Aupa Etxebeste!*-k baditu onak eta originalak diren aurkipenak. Etengabe etxeko gelak behin baino gehiagotan zeharkatzen dituen kamerak ederki azaltzen du egoera horretako giro monotonoa eta klaustrofobikoa. Oso polita da zuzendariek aktoreekin duten detailea: filmaren azkeneko planoaren bitartez zuzendariek aktoreen lana filmaren emaitzan izandako garrantzia omentzen dute. Eta honetaz guztiaz gain, badakite sartzen, batez ere Bergarakook jasoko dugun puntada bat, hau da, herrian mota desberdinetako ikuskizunak egiteko lokala ez edukitzearen kezka.

*Aupa Etxebeste!*-k euskaraz eginiko filmak egitea posiblea dela frogatzen du, eta, gainera, zuzendarien lehen lanaren aurrean gaudela kontuan harturik, ondo gaindituko erronka baten aurrean gaudela esan daiteke.

ANTONIO ZABALA

ZINEMA MERKEAGO
Txartel hau moztu eta sarrera merkeago izango duzu
www.cinesabaco.com
SARREREN SALMENTA ServiCaixa 902 32 08 32
C.C EL BOULEVARD C.C LAKUA
Promozio baliagarria 2005/10/31, astelehenetik igandera. Ez da bateragarria beste promozioekin.
ÁBACO ZINEMA MAILA GORENEAN

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97

ETXEBIZITZAK SALGAI
**Bergara:**
- Duplexa erdialdean 180 m².
- Duplexa erdialdean Oso ondo.
- Erdialdea 110 m². Oso ondo.
- Erdialdea 50 m². Berritzeko.
- Erdialdea 78 m². Oso ondo.
- Erdialdea 120 m². Oso ondo.
- San Pedro 110 m². Berritzeko.
- Bolu 82 m². Ondo.
- San Pedro 75 m². Oso ondo.
- Duplexa Bolun 90 m².
- Espoloia 105 m². Garajea.
- Koldo Eleizalde 80 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta 90 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta 96 m². Oso ondo.
- Osintxu 87 m². Oso ondo.
- Mugertza 104 m². Terraza.
- Bolu 85 m². Ondo.
- Txalet atxikia. Oso ondo.

**Antzuola:**
- Eguzki auzoa 84 m². Eguzkitsua.

DEBA GARAIA INMOBILIARIA
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
**Zarugalde 1 Arrasate**
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

ETXEBIZITZAK SALGAI
**BERGARA:**
- Erdialdea 160 m². Garajea.
- Erdialdean, duplexa 93 m². Berria.
- Erdialdea 77 m². Oso ondo.
- Bolu, duplexa 90 m². Garajea.
- Duplexa, erdialdean 116 m².
- Erdialdea 68 m². Oso ondo.
- Matxiategi 80m². Ondo.
- Martoko 60 m². Berritzeko.
- Elorregi 64 m². Berritzeko.
- Zubieta 80 m². Oso ondo.
- Duplexa, erdialdean 170 m².
- Aranerreka 82 m².
- San Antonio 77 m². Ondo.
- Koldo Eleizalde 80 m². Oso ondo.

**ANTZUOLA:**
- Bustinzuri 88 m². Berria.

**SORALUZE:**
- Gipuzkoa etorb. 80 m². Oso ondo.
- Sagar-Erreka 50 m². Oso ondo.

# Iragarki sailkatuak

**943 25 05 01 edo *sailkatuak@goiena.com***

EIBAR
PSIKOLOGOA BEHAR DA GABINETERAKO. 676 61 70 55

ANGIOZAR
ORTZI ERRETEGIA ALOKATZEN DA. 943 78 22 80 665 72 24 46

DEBAGOIENA
ILE APAINTZAILEA BEHAR DA. ESPERIENTZIADUNA. ONDO ORDAINDUA. 676 22 33 18

BERGARA
ESPERIENTZIADUN NESKA BEHAR DA JATETXEAN ZERBITZARI JARDUTEKO. EGUBAKOITZ GAUAK ETA ZAPATU GAUAK. 943 76 15 59 (BITXOR)

LAN ESKAINTZA
Baserriko hainbat lan egiteko
TRAKTORE-GIDARIAK eta TRAKTOREA DUTENAK behar ditugu
Interesatuok deitu Deba Garaia elkartera.
Lan eremua: Debagoiena
Epea: urriak 21
Helbidea: Deba Garaia, Urteaga 23, 20570 BERGARA. Tel.: 943 76 25 47

ANTZUOLA
JARDUNEAN DAGOEN ARGAZKI DENDA ETA BITXITEGIA ALOKAGAI EDO SALGAI. 943 78 70 66 635 75 72 71

ARETXABALETA
ZERBITZARIA BEHAR DA JATETXERAKO. 943 71 43 45

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Hiru logela, egongela, sukaldea (balkoiarekin), komuna eta ganbara ditu. Hainbat berrikuntza eginda. Deitu 17:00etatik aurrera. 653 71 78 17.

**Arrasate.** Bizkaia etorbidean. 4 logela, bainugela, sukaldea eta egongela ditu. 943 79 96 81 edo 943 79 45 14.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai erdigunean. 4 logela, egongela, bi komun, sukaldea, ofixa eta berogailua ditu. Guztiz jantzita. Gastu txikiak dauzka. 609 03 85 20.

**Arrasate.** Maala kaleko etxe txikietako bat salgai. Deitu denda orduetan. Telefonoa: 943 79 73 90.

**Bergara.** Aranerrekan. Sukaldea, egongela, hiru logela, 2 komun, balkoiak eta trastelekua dauzka. Berogailuarekin. 615 71 70 68.

**Bergara.** Baserria salgai Angiozarren. 1.086 metro koadro. 943 76 55 80.

**Bergara.** Eraikuntza berriko etxebizitza salgai erdigunean. 106 m². Telefonoa: 685 75 78 16.

**Bergara.** Etxea salgai Bergarako erdialdean. 80 metro koadro; 2 bainugela, 3 logela, sukaldea, sala eta terraza espaziotsua. Garajea erostea ere posible da. 656 78 35 32 edo 943 76 18 81.

**Bergara.** Etxebizitza salgai koldo Elizalde kalean. Trastelekua eta garajea. Gauez deitu. 943 76 30 61.

**Hendaian** etxea salgai. Logela, bainugela, sukalde eta jangelarekin. Igerilekua ere badauka. 678 32 91 89.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Herri erdian, 100 m², handia, guztiz konponduta. 610 25 46 69.

**Aretxabaleta.** Ikasleendako etxebizitza ematen da errentan. Telefonoa: 651 70 79 96.

**Arrasate.** Ikasleendako etxebizitza errentan ematen da. Telefonoa: 943 79 18 95 edo 626 00 68 37.

**Vera** (Almeria). Hondartza eta urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza errentan. Jantzita. Igerilekua. 657 73 94 25.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate edo Aretxabaletan** bikote batek etxebizitza alokatuko luke. 655 70 71 74 edo 630 12 31 52.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Telefonoa: 628 22 30 03.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Erdigunean. Telefonoa: 690 06 17 10.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko unibertsitatetik oso gertu. Berritua eta berogailuarekin. 630 33 14 82.

**Bergara.** Etxebizitza osatzeko jendea behar izatekotan, deitu. Enrique. 943 76 32 95.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** 16 metro koadro ditu eta Roneon kokatuta dago. 653 73 48 80 edo 656 73 56 04.

**Bergara.** Garaje itxia salgai Bergarako erdialdean. 9 metro koadro, atea motorizatua eta mandoarekin. 656 78 35 32 edo 943 76 18 81.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Eibarren** ganbara alokatzen da. Toki onean dago eta igogailua dauka. Deitu 22:30etik aurrera. Deitu telefono honetara: 678 82 29 95.

### 304. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Neska gazte talde batek lokal merke bat errentan hartu gura du. Hilero 300 euro baino gutxiago ordaintzeko prest daude. Eguerdietan deitu. Amaiur. 943 77 09 27.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Aretxabaleta.** Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko. 656 41 00 08.

**Arrasate.** 40 urtetik gorako emakume bat behar da umeak zaintzeko. Telefonoa: 656 74 97 11.

**Arrasate.** Bi ume zaintzeko emakume bat behar da. 943 08 10 53.

**Bergara.** Etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da Bergara erdialdean. Telefonoa: 656 78 35 32 edo 943 76 18 81.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** 23 urteko mutila asteburuetan tabernan lan egiteko prest dago. 605 75 53 27.

**Arrasate.** Neska gaztea gertu ostiral eta larunbat gauetan taberna batean lan egiteko. Deitu telefono honetara: 646 15 21 20.

**Arrasate.** Pertsona arduratsua orduka lan egiteko gertu. 666 36 15 79.

**Arrasaten** bizi den gizonezkoak goizez lana egingo luke sukaldean, garbiketa kontuetan edo pertsona nagusiak zaintzen. Atzerritarra da, baina baditu paperak. Telefonoa: 666 83 21 95.

**Banaketa** lanak egingo nituzke. Furgoneta daukat. 690 81 64 89.

**Bergara.** Egun osoz lan egiteko gertu nago. Telefonoa: 650 31 53 02.

**Debagoiena.** Eraikuntza alorrean lan egingo nuke: igeltsero, eskaiolista... Telefonoa: 654 07 39 95.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Arrasate.** DBHko edo Batxilergoko eskola partikularrak emango nituzke. Esperientzia. Deitu telefono honetara: 669 13 30 98.

**Bergara.** Eskola partikularrak emango nizkieke Lehen Hezkuntzako ikaslei edo behar bereziak dituzten ikasleei. 650 31 53 02.

**Debagoiena.** Ingeleseko eskolak emango nituzke zapatu goizetan. Maila guztiak. 687 66 09 54.

**Oñati.** Trikitixako eskolak ematen ditut. Anima zaitez. 646 03 44 13.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Autokarabana.** Fiat Ducato. Sei lagunendako. 1999koa. 30.000 kilometro. Telefonoa: 651 70 79 96.

**BMW** 323 Coupe. 74.000 kilometro. 2000koa. 626 52 91 67.

**Citroen** Saxo. VTS. 120 zaldi. Lau urte. 75.000 kilometro. Egoeran onean. Josu. 665 71 61 31.

**Ford** Escort TD auto familiarra salgai. SS-AW. 1800 euro. 677 78 31 56.

**Gasolinazko RC bat salgai.** Eskala 1/10. Telefonoa: 679 07 55 50.

**Honda CBR** 600f motorra salgai. 1998koa da. Gorri, zuri eta urdin koloreetakoa. 4.400 euro. 665 73 55 63.

**Hyundai H1** furgoneta salgai. 2002koa da. Kanpinerako prestatua. 7 plaza. 76.000 km. Egoera onean. Telefonoa: 630 10 44 13.

**Nissan** Terrano II TD. 1995ekoa. Oso ondo zaindua. 8.000 euro. 627 57 32 77.

**Suzuki** Samurai autoa salgai. Luzea. 1989koa. Deitu 20:00ak eta 22:00ak artean. 639 13 11 49.

**Vito furgoneta** salgai. Ohea ere badauka. Telefonoa: 615 75 11 02.

**Vito** 102 furgoneta. 2002koa. Deitu telefono hometara: 620 17 80 47.

**XR** 400 motorra salgai. 1999koa. 8.000 km. Gutxi erabilia. Deitu telefono honetara: 627 57 32 77.

**Yamaha** WR 250F. 4T. BRR matrikula. 2002koa. Oso egoera onean. Jabi. Deitu telefono honetara: 943 79 89 82 edo 665 75 03 73.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Marrazteko mahaia** salgai. 100 x 70 cm. Egokia Ingeniaritza eta Arkitektura ikasleendako. 679 73 63 29.

**Sukaldeko mahaia** eta relaxa salgai. Gutxi erabilitakoak dira. 659 81 59 15.

### 802. EROSI

**Gurpil-aulki** elektrikoa erosi nahi dut. 943 03 88 03.

**Lursaila** erosiko nuke Apotzagan. 690 81 64 89.

IKASTAROAK
Ekin Emakumeak • AED

**Eskulanak**
Astearteetan, 15:30etik 17:30era edo 18:00etatik 20:00etara. Ikastaroa hasita dago.
**Orratz lanak**
Ostegunetan, 15:00etatik 17:00etara. Ikastaroa hasita dago.
**Hip-hop eta funky dantzak**
Urriaren 3an hasiko da. Astelehen eta asteazkenetan, 19:00etatik 20:15era.
**Autobabesa**
Urriaren 15ean hasiko da. Larunbatetan, 11:00etatik 13:30era.

LAN ESKAINTZA
Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibak
BANATZAILEAK BEHAR DITU ESKORIATZAN
Astelehen eta egubakoitz goizetan jarduteko.
Interesatuok deitu: 943 71 23 91 telefonora (Marta)
Goiena Komunikazio Zerbitzuak

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

Eskuratzeko modua:
SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
Deiaren prezioa: 0,90 + BEZa/ Abesti eta logoak (sms 1) Soinuak (2sms)
7505 zenbakira



Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

ABESTIAK POLIFOIKOAK (sms 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

Himnoak
Alaves | ALAVES
Athletic Club | BILBAO
Osasuna | OSASUNA
Reala | REAL
Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) | AITORMENA
Aizkolari (Kortatu) | AIZKO
Bi Minutuero (Hertzainak) | BIMINU
Dub manifest (Fermin Muguruza) | DUB
Egunero (Hertzainak) | EGUNERO
EH Sukarra (EH Sukarra) | SUKAR
Ellos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) | ELLOS
Enamorado de la muerte (RIP) | ENAMO
Etorkizuna (Etsaiak) | ETORKI
Ezer ez da betiko (Ken7) | EZER
Gora Herria (Negu Gorriak) | GORA
Haizea (Ken7) | HAIZEA
Hegal egiten (Itoiz) | HEGAL
Ikusi (Delirium Tremens) | IKUSI
Ilargia (Ken 7) | KEN
Inpernuen ate joka (Gatibu) | INPER
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) | JOKIN
Kaixo (Urtz) | KAIXO
Lau Teilatu (Itoiz) | ITOIZLAU
Laztana (Latzen) | LAZTA
Loretxoa (EXKIXU) | LORE
Marea Gora (Itoiz) | MAREA
Musturrek sartunde (Gatibu) | MUSTURREK
Nicaragua (Kortatu) | NICA
No time for love (Hertzainak) | NOTIME
Salve (La Polla) | SALVE
Sarri Sarri (Kortatu) | SARRI
Sorginen leizean (Exkixu) | SORGIN
Txatxo (Zarama) | TXATXO1
Txus (La Polla) | TXUS
Trikitixa
Bexamela ta pastela (Maixa ta Ixiar) | BEXAMELA
Bokespok (Kepa Junkera) | BOKESPOK
Hik lan eta nik jai (Tapia) | HIK
Itsas ontzi baten (Kaxiano) | ITSAS
Kupela (Epelde eta Larrañaga) | KUPELA
Mila galdera (Alaitz / Maider) | MILAI
Nirekin (Gozategi) | GOZATEGI
Ny Hirahira (Kepa Junkera) | HIRA
Txanpon baten truke (Alaitz / Maider) | TXANPON
Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) | SOROTAN
Bai euskarari (Pantxoa) | BAI1
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | BIZKAIA
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) | EUSKAL
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) | EUSKALDUN
Ez da posible (Ruper Ordorika) | POSIBLE
Furra Furra (Oskorri) | FURRA
Galiziara noa (Oskorri) | GALIZIARA
Gernikako Arbola (Gontzal Mendibil) | GERNIKA1
Haika Mutil (Mikel Laboa) | HAIKA
Izarren hautsa (Xabier Lete) | IZARREN
Lepoan hartu ta (Pantxoa/Peio) | LEPOAN
Marinelaren zai (Sorotan Bele) | MARINE
Nere herriko neskatxa maite (B.Lertxundi) | NERE
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) | NON
Oi! Ama Euskal Herria (B.Lertxundi) | OIAMA
Tirauki (Oskorri) | TIRA
Txatxamatxalinatxu (Mikel Urdangarin) | TXATXA
Txoria txori (Mikel Laboa) | TXORIA
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordorika) | ZAINDU
Herrikoia
Bagare | BAGARE
Desde Santurce a Bilbao | DESDE
Ikusi Mendizaleak | MENDI
Pintxo-pintxo | PINTXO
San Simon eta San Judas | SAN
Jaietakoak
Artillero dale fuego | ARTILLERO
Marijaia (Kepa Junkera) | JAIA
San Fermin | FERMIN
San Martzialetako alardea | SAN MARTZIAL

SOINUAK (2 sms)
Soinu izena | KODEA
Irrintzia | IRRINTZI
Txalaparta | TXALA

PERTSONALIZAZIOAK
KILOMETROAK 05
ABESTIA (sms 1)
Abestiaren izena | KODEA
OIA | KMKP
LOGOA (sms 1)
Logoaren izena | KODEA
KMKL ZURI KMKL URDIN





Eskuratzeko modua:
ABESTIA: Bidali KODEA
LOGOAK: Bidali KODEA
7505 zenbakira

OHARRAK
**1.BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: **www.smsoinu.com/bateragarri**
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.

**2. BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.

**3. ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: **smsoinu@smsoinu.com** / edo deitu **902 01 21 48** telefonora.

**4. PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

...ASKOZ GEHIAGO GURE WEBGUNEAN www.smsoinu.com

## AIPAGARRI

### Ana Toledo
ANTZUOLA



Euskaltzaindiaren azken osoko bilkuran Juan San Martin euskaltzain zenaren aulkia hartu eta euskaltzain berria izateko proposatu dute antzuolarra. Deustuko Unibertsitateko Donostiako campusean da irakasle eta Euskaltzaindiaren Gipuzkoako ordezkaria ere bada egun.

### Jose Antonio Azpiazu
OÑATI



Oñatiartutako ikertzaile legazpiar honek *Nuevas historias de corsarios vascos.* liburua kaleratuko du urrian Ttarttalo argitaletxearekin. Bertan pirata euskaldunen bizitzako pasarteak eta abenturak jasoko ditu. Aurrez ere gai honen gainean liburu bat egindakoa da Azpiazu.

### Iñaki Bengoa
ARRASATE



Arrasateko Gose talde berriko kide da Iñaki Bengoa. Ines Bolinaga (ahotsa eta trikia) eta Tadeosekin (programazioak) batera estraineko lana kaleratuko du urriaren 4an. Taldeak trikitia eta elektronika nahasten ditu, erritmo lasaiak, dotoreak eta malguak eginez. Evaristo eta Francis izan dituzte laguntzaile.



**Amaia Zabaleta** eta **Gorka Perez** zapatuan, urriak 1, ezkonduko dira Elosuko San Andres elizan. Ondoren, Lasa jatetxean egingo dute bazkaria lagunekin eta senideekin. Familiakoen partetik, zorionak!



**Henar** eta **Edu** arrasatearrak Valladolideko Tordesillas herrian ezkondu ziren irailaren 24an. Zorionak, lagun guztien partetik.



**Rosario** eta **Fernando** 1955eko urriaren 7an ezkondu ziren Antzuolan. Datorren egubakoitzean urrezko ezteiak ospatuko dituzte ingurukoekin. Familia osoaren partetik, zorionak.

### HILDAKOAK

**Victoriano Hilera Olano.** Arrasaten,irailaren 22an. 85 urte.

**Roberto Romaratezabala Osinaga.** Arrasaten, 23an. 46 urte.

**M. Angeles Gerediaga Ugarte.** Elgetan, irailaren 24an. 59 urte.

**Clemente Usabiaga Iraola.** Arrasaten, irailaren 24an. 74 urte.

**Juan Iñurrategi Ugarte.** Bergaran, irailaren 25an. 78 urte.

**M. Carmen Laskurain Ugalde.** Bergaran, irailaren 26an. 76 urte.

**Floren Gurutzeta Axpe.** Arrasaten, irailaren 27an. 74 urte.

**Monica Peña Cañas.** Bergaran, irailaren 28an. 91 urte.



**Izar** eta **Raul** irailaren 24an ezkondu ziren Apotzagako baselizan. Gure-Ametsa jatetxean familiako eta lagunekin ospatu zuten gero; eta orain Mexiko aldean daude, Maia Erriberan eta Karibean itsas bidaia egiten. Zorionak, bikote, FITeko langileen partetik.



**Angel *Cañi*** eta **Laura** zapatuan, urriaren 1ean, ezkonduko dira Dorletako santutegian. Bazkaria Gure Ametsa jatetxean izango dute eta ezkon bidaian Mexikora joango dira. Zorionak, bikote, lagunen partetik.

---

URTEURRENA

Julia
Beitia Unamuno
Floren Aiastuiren alarguna



Lehen urteurreneko meza
domekan, urriaren 2an,
12:00etan, Arrasaten, Gesalibarko
Ageda Donearen elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Eusebio
Bengoa Etxebarria



Lehen urteurreneko meza
domekan, urriaren 2an,
11:00etan,
Aramaioko Aixolako elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Carmelo
Garaitonandia Kortabarria



Lehen urteurreneko meza
domekan, urriaren 2an,
12:30ean, Aramaioko Uribarri
auzoko San Esteban elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKELA

Floren
Gurutzeta Axpe

Arrasaten hil zen 2005eko irailaren 27an, 74 urte zituela.

*Beti izango
zaitugu gogoan.*



Emaztea, seme-alabak eta bilobak.
Arrasaten, 2005eko irailaren 30ean.

ESKER ONA

Jose Mari
Uranga Arregi

Arrasaten hil zen 2005eko irailaren 21ean, 89 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2005eko irailaren 30ean.

ESKER ONA

Asier
Sastre Estevez

Aretxabaletan hil zen 2002ko irailaren 27an, 22 urte zituela.

Hirugarren urteurreneko
elizkizunetara joandakoei,
eskerrik asko lagunen izenean.



Aretxabaletan, 2005eko irailaren 30ean.

*GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA*
Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.
*Boni Laskurain 3 BERGARA*
**943 76 35 71**

ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA

# Kosmetikatik haratago

**Maiderren galdera:**
**Goienkaria irakurtzen egon naiz eta zuri idaztea pentsatu dut. Kontua da, txikitatik azaleko gaixotasun bat daukadala eta esan didatenez ezin da osatu. Izena “Queratosis Polar” da. Jakingo duzunez, izterretan eta besoen atzeko partean oilo azala daukazunean moduko garau batzuk dira. Horiek eskuarekin ukitzen badituzu latz-latzak dira.**
**Medikuek hainbat krema eman dizkidate, baina alferrik. Niretzako oso deserosoa da. Udan, adibidez, ezin ditut praka motzak jantzi, eta nazkatuta nago. Hamabi urte ditudanetik daukat gaixotasun hau; esan didate urteak pasatu ahala desagertzen joaten dela. Momentuz ez da nire kasua. Buruan ekzema bat daukat eta horrek ere zerikusia daukala esan didate. Azido glikolikoa, salizilikoa eta ura daukaten medikamentuak onak ei dira. Kontua da, zein da niretzako kremarik onena? Zure laguntza eskertuko nuke.**

Zure erantzunaren zain,
Maider

Maiderri erantzuna: Ikusi barik ezin dizut esan zein den arazoaren irtenbidea. Azidoen gainean berba egitea ez da horren erraza (efektiboa izango den formula aurkitzea ez da erraza). Glikolikoak onak dira, baina zertarako dira onak?

Azalaren egoera zein den jakin behar dugu lehenik, eta gero zein kontzentrazio mota interesatzen zaigun. Seguruenik kontzentrazio baxuarekin hasiko ginateke eta poliki-poliki igotzen joango ginateke. Batzuetan arazoa konpontzeko bidean dagoenean kontzentrazioa jaitsi egin behar da edota azidoa aldatu.

Azido salizilikoak emaitza oso onak ematen ditu (baita ondorengoek ere: glikolikoak, azelaikoak eta laktikoak), baina glikolikoarekin gertatzen den bezala, ezin daitezke modu errazera erabili.

Zure arazoari dagokionez, uste dut badakidala zer den zuk daukazuna, baina nahiago dut neuk ikustea.

Izterretan ez dut sekula tratatu arazo hori, baina aurpegian eta besoetan bai, eta oso emaitza onak ematen ditu.

Berrogeita bost urte ditut eta kokotsean eta lepoan ile mordoa hasi zait irteten. Argizariarekin kentzen ditut ileak eta baita pintzarekin ere. Kontua da geroz eta ile gehiago ditudala eta ez dut nahi, senarra bezala, bizarra mozteko makinarekin ileak kentzen hastea. Depilazio elektrikoarekin saiatu naiz, baina asko sufritzen dut. Laser bidezko depilazioari buruzko informazioa ematea gustatuko litzaidake (estetizista batekin kontsultatu nuen, baina ez zidan gomendatu, ileak banan-banan kendu behar nituela-eta oso luzea izango litzateke; gainera ile batzuk zuriak dira).

Leonor, erantzuna datorren astean emango dizut.



**Maria Isabel Hurtado**
Dermatizista
e-maila: mi.hs@euskalnet.net

## HITZGEZIDUNAK

**Luma**



| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| (argazkia) | | | Gezurtero / Bizikletaren pieza | | *Deitura / Daukat | | Xumea, xehea |
| | | | | | | | |
| | | | Arabako herria / Igarokorrak | | | | |
| Zelan / Oskarbi | | Istil / Harizko bola | | | | | |
| | | | | | A birritan / Bigarren bokala | | |
| Azkar, berehala / Aldi, sasoi | | | | | | | Hitzarmen, akordio |
| | | | | | Pare bat / Damua sentitu | | |
| Balioa kalkulatu | Iparretarrak / Itxura, (ald) | | | Du, niri / Radioa | | | |
| | | | | | | | |
| Metroa / Infin.., erori | | *Izena / Lo egiteko altzairu | | | | | |
| | | | | Oinarrizko edari / Arte bokal barik | | | Nor, pluralean |
| Ernea / Eraginak, ondorioak | | | | | | | |
| | | | | | | | |

## BILABILA7





## UMOREGIROAN

**Kike Amonarriz**



**ABLITASTARRAK ZERURA**

Kaskante inguruan auto istripua gertatu, eta lau ablitastarrak zerura igo dira zuzenean. Han San Pedrok hartu ditu eta:

– Oraindik erabaki gabe daukat zuek nora bidali, eta galdera batzuk egin nahi dizkizuet. Ea, zu! Zatoz hona!

Lehenengo ablitastarra hurbildu zaio eta San Pedrok:

– Zuk zer egin duzu zure denboran behealde horretan?

– Nik? Bada... Ezer berezirik ez... Musean jokatu eta mekaguendioska aritu!

– Baina zer diozu? Zoaz agudo infernura!

Bigarrenari deitu eta galdera bera:

– Jakin al daiteke zuk zer egin duzun bizitzan?

vNire lagunak esandakoa: musean jokatu eta mekaguendioska aritu!

– Infernura zu ere!

Hirugarrenak, lagunei zer gertatu zaien ikusita, zerbait asmatu beharra sumatu du:

– Eta zuk? —San Pedrok serio demonio—.

– Nik? Familia aurrera atera... Lana gogotik egin eta zazpi manamenduak betetzen saiatu.

Hori entzuterakoan, laugarren ablitastarra lagunak hanka sartu duela ohartu da eta atzetik, disimuluan eta ahots baxuan:

– Hiru gehiago!

Eta erantzuten ari zen ablitastarrak:

– Hordago, mekaguendios!

## SOLUZIOAK

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
|  | | | ● | G | ● | S | ● |
| | | | P | E | D | A | L |
| | | | ● | Z | U | I | A |
| ● | N | ● | P | U | T | Z | U |
| Z | O | H | A | R | ● | A | A |
| ● | L | A | S | T | E | R | ● |
| G | A | R | A | I | ● | B | I |
| ● | ● | I | K | ● | D | I | T |
| B | A | L | O | R | A | T | U |
| ● | M | ● | R | A | M | O | N |
| E | R | O | R | ● | U | R | ● |
| ● | O | H | A | R | T | I | A |
| E | F | E | K | T | U | A | K |



ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

Urriaren 3a: 058 zozketa

# Zorionak, Iñaki eta Mertxe!

Iñaki Arriaran arrasatearrari egokitu zaio *Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedunen artean zozkatutako Tunisiara bidaia. Haren emazte Mertxe Herranek jaso du saria, Iberia bidai agentziak emana. Senar-emazteek egingo dute 8 eguneko bidaia.

## "Sekulako ezustea izan da guretako, eta oso pozik gaude sariarekin"

**Zela hartu zenuten berria?**
Lankide batek esan zion senarrari. Hasieran pentsatu zuen txantxetan zebilela, baina etxeko postontzira jo, *Asteleheneko Goienkaria* hartu eta irakurri zuenean ziurtatu zuen.

**Zozketaren zain zeunden?**
Ez. Badakit harpidedunon artean astero egiten direla zozketak, baina oraingoan despistatuta geunden; sekulako ezustea izan da. Oso pozik gaude.

**Zer da gehien gustatzen zaizuna *Asteleheneko Goienkaria*-tik?**
Dena. Goitik behera begiratzen dut. Etxean denok irakurtzen dugu, bai senarrak eta biok, eta baita seme-alabek ere. Haiek kirolei erreparatzen diete; nik, ordea, lehenengo, jaiotakoei-eta.

**Noiz harpidetu zineten?**
Hasieran. Alabak esan zigun interesgarria zela harpidetzea, eta, bestalde, telefonotik ere deitu ziguten.

**Egonak zarete Tunisian?**
Ez, eta ez dugu gauza askorik ezagutzen, baina bidaia agentzian eman digute aldizkari bat.

**Zelako bidaia izango da?**
Zazpi gaueko egonaldia Tunisiako kostaldean, lau izarreko hotelean. Bilbotik aterako da hegaldia eta bidaia eta egonaldia dauzkagu ordainduta.

**Lagunek-eta esan dizuete zerbait?**
Bai, jende askok deitu digu zoriontzeko. A, ahaztu baino lehen eskerrak eman nahi dizkiot *Asteleheneko Goienkaria*-ri, eta esan asko gustatzen zaigula.

**"Lagun askok deitu digu sariagatik zoriontzeko"**



Iberia bidaia agentziako Josune San Vicente eta Tunisiara bidaia irabazi duen Mertxe Herran.

## URRIAREN 3KO SARIAK



- **EIBAR-REAL MADRID B** futbol partidua ikusteko sei gonbidapen. Saridun bakoitzarendako, bi.
- Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara jaoteko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTTA**n bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).

## Baldintzak

- *Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

**Harpidedun egiteko:**
**902 36 38 51**
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

**Kuota:**
**Harpidetza kuota, 35 euro**
**2005 osoko** harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, **aste bukaera osoa**

# Urriaren 3an estreinatuko du Goiena Telebistak programazio berria, ausarta eta etenik gabea

*Telebista irauli egin du Goiena Telebistak, bai itxuran eta baita edukietan ere*

GOIENKARIA

**Gertukoa, irekia, informatzailea eta euskalduna da GOITB, eta urritik aurrera ahalegin berezia egingo du balio horiek indartzeko. Albistegiak orduoro eskainiko ditu: 13:45ean lehena eta 23:45ean azkena. Inork baino lehenago eskainiko du informazioa.**

Astelehenean estreinatuko du GOITBk programazio berria. Aldaketa asko izango ditu ibarreko telebistak, albistegi gehiagorekin eta saio entretenigarri askorekin. Betiere, GOITBren balioei eta izaerari eutsiz.

Gertukoa izaten segituko du eta eskualdea izango da abiapuntu. Irekia ere izango da eta bere jardunean ikus-entzuleak ez dira jasotzaile hutsak izango, parte-hartzaileak baizik. Inork baino informazio gehiago eskainiko du egunero albistegietan eta, telebistaren panorama desorekatuan, GOITBk euskararen aldeko lekukotza eskaintzen segituko du.

**ALBISTEGIAK LAURDEN GUTXITAN**

Aldaketa nabarmenenak albistegietan egingo ditu GOITBk. Orduoro eskainiko ditu albistegiak, 13:45ean aurrenekoa eta 23:45ean azkena. Inork baino azkarrago emango du informazioa; izan ere, laurden gutxitan izango da aukera ibarreko albisteak ikusteko.

Julen Iriondo eta Deiane Arrieta kazetariek eta Mikel Alberdi errealizadoreak zuzenduko dituzte albistegi nagusiak, eguerdikoa Julenek eta ilunkarakoa Deianek aurkeztuta. Horiexek izango dira GOITBk egingo dituen informatibo nagusiak.






**'Motzean'**

MARTITZENA / **14:15** EGUAZTENA / **17:30**

## Debagoiendarrei egindako elkarrizketa laburrak

Edozein debagoiendar izan daiteke *Motzean*-eko protagonista. Elkarrizketa laburrak eta intimoak dira saio horren ardatz. *Motzean* saioan agertzeko baldintza bakarra da debagoiendarra izatea eta norberaren bizitzaren gaineko galderak erantzuteko prest egotea.

Dagoeneko zenbait elkarrizketa grabatu dituzte GOITBn, eta urritik aurrera izango da aukera elkarrizketa horiek ikusteko. Oraingoz, hauenak: Leintz Gatzagako Juan Mari Makatzaga; Aramaioko Manex Agirre eta Juanito Saizar; Eskoriatzako Esteban Arrieta; Aretxabaletako Bernabe, Jon Molina eta Mari Karmen Etxeandia; Arrasateko Enrike Dolara, Lorentxo Altube eta *Arristi*; Elgetako Jabier Arantzeta eta Oñatiko Oihana Diez. 10 minutuko elkarrizketak izango dira.

*Ibarreko bizilagunak dira 'Motzean' saio berriko protagonista nagusiak*



**'Harian'**

MARTITZENA / **22:15** EGUENA / **23:00**

## Marijo Deogracias kazetariaren itzulera

GOITBko albistegietan ibarreko berriak aztertuko dituzten bitartean, Marijo Deogracias kazetariak gidatuko duen saio berrian Euskal Herriko, Europako eta mundu osoko gaiak jorratuko dituzte. Euskadi Irratiko *Mezularia* edo Radio Euskadiko *Ganbara* saioetan erabiltzen duten antzerako formula erabiliko dute GOITBko saio berrian.

Marijo Deogracias kazetariarekin batera, hainbat iritzi emaile izango dira. Unibertsitateko irakasleek, sindikatuetako zein alderdi politikoetako ordezkariek, kazetariak eta zenbait elkartetako partaideek egingo dute berba solasaldian. Martitzenetan, gaurkotasun handiko gaiak jarriko dituzte mahaiaren gainean, eta eguenetan, beste era bateko gaiak. 30 minutuko solasaldi arinak izango dira.

*Martitzenetan gaurkotasuna aztertuko dute, eta eguenetan, beste era bateko gaiak*

## TELEBERRIAK

### Toki telebisten sareak eskainitako saio ugari GOITBn

Tokiko izena du toki telebisten sareak, eta GOITBk, Zarauzko Telebistak, Goierri Telebistak, Urdaibai Telebistak, Xaloak eta Ttipi Ttapak osatzen dute. Telebista horiek ekoiztutako saioak ikusteko aukera izango da GOITBn. Sukaldaritza saio bat egin du Ttipi Ttapa telebista nafarrak, eta Goiena Telebistan ikusiko da urritik aurrera. Gainera, Goierri Telebistak eginiko *Bidetxurretik* saioa ere izango da.

### ETBrekin eginiko akordioari esker, saio berriak izango dira

Marrazki bizidunen aldeko apustua egin du ikasturte berrian GOITBk. *Reporter Blues* ikusgarria eskainiko du urritik aurrera. Gainera, *Lazkao Txiki* eta *Iratxo Magikoa* ere izango dira. Era berean, ETBk ekoiztutako beste zenbait saio eskainiko ditu: *Chiloe* eta *Eguzkilore* saioen ordez, *Elkartasun bideak* eta *Teknopolis* izango dira Goiena Telebistan hastear den denboraldian.

### 'Harmailatik' eta 'Behazulo' saioak, dekoratu berriekin

Dekoratu berriak estreinatuko ditu GOITBk. Besteak beste, *Harmailatik* kirol saioari itxura berria eman diote, eta beste horrenbeste gertatu da *Behazulo* tartearekin. Goiatz Aranak aurkezten duen saioak ere dekoratu berria izango du. Beste zenbait programa, berriz, ez dituzte aldatu. *Ilunpean* saioaren eta albistegien itxura aurreko ikasturtearen antzerakoa izango da. Oro har, telebista itxuraberritura dator.

## TELEBEGI/ Eneko Azkarate

### *Irauli*

**Udazkenaren etorrerarekin, apurka-apurka hasi dira telebista kate guztiak ikasturte berrirako saioak eta aurpegiak aurkezten. Oraingo astean, esaterako, EITB taldeak egin du aurkezpen ponposoa Bilboko lehengo nazioarteko erakusketa aretotik, etorkizunean EITB taldearen egoitza nagusia izango den horretatik. Lehia sekula baino gogorragoa izango dela esan du ETBko informatiboetako arduradun Bingen Zupiriak. Besteak beste, Canal Plus zenak zabalik emitituko duelako Cuatro izenarekin eta albistegietako arduradun Iñaki Gabilondo donostiarra izango delako.**

**Lehia horretan ez da sartuko Goiena Telebista, geure telebista, Euskal Herriko beste eskualdetakoek ikusterik ez duten telebista, hemengoona bakarrik dena, eta hemengoon kontuez jarduten duena: gertukoena. Honek ere, gainera, hamaika berritasun dakar, orain artekoa goitik behera aldatu eta irauli egingo duelako. Irrikatzen nago astelehena heltzeko.**


BERRIAK!
EROSKI
Produktuak
Aurrezkiaren
marka
2. alea
SALNEURRI
ERDIAN
Seinalatuta dauden produktuetan
EROSKI
Erosten jakin

Goienkaria ©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
**Aretxabaleta** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxa • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.935 ale • **Difusioa:** 17.680 ale.
**HARPIDETZA:** **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

EGUBAKOITZA, 2005eko irailaren 30a

# *Atzeskua*

OIHANA ELORTZA

## Jokin Labaien/ Bertso irakaslea

**Ingelesera, solfeora, gimnasiara eta bertso eskolara apuntatzen dira orain umeak?**
Aukera bat gehiago da bertso eskola, baina lehiakortasun handia du. Umeei kirolak egiten die tira eta gurasoei, berriz, ingelesak.

**Eskola orduetan irakasten duzue bertsotan?**
Hezkuntza arautuan sartu genuen bertsolaritza duela hiru urte, eta fruituak hasi dira agertzen.

**Zeuok ematen dituzue eskola horiek?**
Gipuzkoako proiektu bat da. Leintz bailaran gabiltzanak bertso eskolako irakasleak gara justu, Nerea Urra eta biok.

**Noiz hasiko du ikasturtea bertso eskolak?**
Urrian, ekain erdi ingurura arte. Joan den ikasturtean bost ikasle izan genituen Arrasaten, zortzi Aretxabaletan eta beste bost Eskoriatzan.

**Kopuru handiak dira?**
Bai, ikasle dezente dira, egia esan. Urtetan egon gara bertso eskolaren kanpainak egiten, baina lagun bat edo bi apuntatzen ziren bakarrik, ez zen talderik sortzen.

**Oraindik ez dakite zenbat afari egiten dituzuen, ala?**
Umeei irakasten diegu guk bertsotan. Dena dela, denborarekin jakingo dute afarien berri eta eurek ere egingo dituzte.

**Mikrofono aurrean nola kantatu ere irakasten diezu umeei?**
Beste urrats bat da hori. Joan den San Juanetan agur bana egin zieten Arrasateko ikasleek bertsolariei, eta oso ondo egin zuten.
Eskola guztietan, saiatzen gara hasieratik ondo pasatzen.

**Gogoratzen duzu zure lehenengo aldia?**
Bergarako bertso saio baten izan zen, bertsolariei agurra eginez.

**Zer ikusten duzu oholtza gainetik, mikrofonoa aurrean duzula?**
Aurrean duzun jendea beti ikusten da, begi asko egoten dira-eta begira. Urduri daudenendako gomendatzen dute puntu zehatz bat hartu eta beti bertara begiratzea. Beste batzuk, berriz, jendea analizatzen hasten dira.

**Elkarri adarra jotzen ere bertso eskolan irakasten duzue?**
Automatikoa izaten da hori, ez dago askorik erakusteko. Eginez ikasten da. Gainera, bertsolaritza gustatzen zaionak eskolatik kanpo ere martxan du burua etengabe. Nik, adibidez, matematikako eskoletan bertso asko egiten nituen.

**Etxeko-lanik ematen duzue bertso eskolan?**
Ez, baina badaude etxean bertsoa eginda eskolara datozen ikasleak ere.

**Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako saio bat Arrasaten egingo dute urriaren 23an. Joango zara ikustera?**
Lan egitea egokitzen zaigu aurten. Arduradunak deitu dit esateko herri bakoitzean talde bat behar dutela laguntzeko: sarrerak saltzeko, kartzelako saioan egoteko, atea zaintzeko...




**"Bertsolaritza eskola arautuan sartzeak fruituak eman ditu; lehen ez zen talderik sortzen bertso eskola egiteko; orain bai"**

**"EHko Bertsolari Txapelketako Arrasateko saioan lan egitea egokitzen zaigu"**

**"Elkarri adarra jotzea automatikoa da, ez dago askorik erakusteko; eginez ikasten da"**

► *Arrasate/ 20 urte / Bertsolaria ere bada*

## PIPERRAUTSA

### *Aupa...*

*Aupa Etxebeste!* Arrasaten ikusi nuen domekan. Sarreran, sekulako jendetza. Bergarar asko ezagutu nuen, filmean herria ikustera etorrita. Batzuek beraien burua ere bai.

Antolaketa eskasa, Amaian. Sarrera hartzeko, sekulako ilara. Sartzeko, beste horrenbeste. Jarlekuen zenbakiak, gehienetan falta, norberena topatu ezin. Eta, hala ere, orduan puntuan filma botatzen hasi, jendea sartzen ari zela. Txarto! Bide batez, ez zegoen euskarazko laburren bat ezagutzera emateko, film luzearen tiradizoa aprobetxatuz?

Beste arazo bat, filmaren soinua. Zuzenean hartua da, eta hasieran kosta egiten zen ezer ulertzea. Gainera, gipuzkera zerratu samarra erabiltzen dute, nonbait graziosoago izate aldera. Hori ere zailtasuna. Eta azpitituluak traba, niretzat behintzat.

Eta, horrekin guztiarekin, asko gustatu zitzaidan filma. Historia ondo josia dago, pentsatu da baliabide gutxirekin egiteko eta ez da gertatzen pobre, aktoreen lana sinesgarria da, errealizazioa txukuna eta musika egokia, probetxuz erabili dituzte Bergarako plaza eta inguruak...

Gustatu zitzaidan emaitza, eta poztu egiten nau egitasmo osoaren arrakastak. Erakusten du ezina ekinez egin daitekeela oraindik, ideia on bat eta ilusio gurdikadak juntatzen direnean.

Eta, seinale onena, zinema lepo beteak txalo jo zuen filma amaitzean. Beraz, aupa, Asier Altuna eta aupa, Telmo Esnal!

MIKEL IRIZAR
www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Leintz bailara,
Debagoiena,
Gipuzkoa,
Euskal Herria,
Ama beraren alabak.

Euskara,
jalgi hadi...
PLAZARA!

eusko alkartasuna
EA